

2014ko Urtarrila

K

Oñatiko Udala 235. zkia.

KOINUPETIK



TXAPELA KENTZEKO BERTSO SAIOA

BECeko finaleko zortzi bertsolariak
ariko dira Oñatin urtarrilaren 5ean

pinturas
MUÑOZ
margoak

MARÇOAK, ATE METALIKOAK
eta ATE AUTOMATIKOAK

Olakua 7, behea
Tel.: 686 975 819
20560 Oñati

Liburutegiko BERRIAK

Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua




LIBURUA
"GAL: 30 urte"
Eider Goenaga. Elkar.




LIBURUA
"La frontera invisible"
Kilian Jornet. Now Books.



LIBURUA
"¿Para qué sirve realmente la ética?"
Adela Cortina. Paidós.



LIBURUA
"Batzarrak, jatorrizko antolaketa"
Patxi Azparren.



LIBURUA
"La biblia de los zumos para la salud"
Pat Crocker. Gaia ediciones.



LIBURUA
"El estado de las cosas de Kortatu"
Roberto Herreros. Lengua de Trapo.



LIBURUA
"La reconciliación"
Juan María Uriarte. Salterrae.

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 - 13:00 / 16:30 - 20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 - 19:30



Oñatiko Udala

TXALOKA UDAL LUDOTEKA

2014an matrikula %70 merkeago

Hautzaro zoriontsurako
ezinbesteko baldintza da
haurrek jolasteko denbora izatea

Jolasa da daukagun
baliabide hezitzaileak
garrantzitsuenetakoa

Jolasa da Txaloka Ludotekaren
oinarria bi hezitzaile
esperientziadunen gidaritzapean

Urte osoa

1. haurra = 60 €

2. haurra = 50 €

3. haurra = 40 €

Matrikula
epea zabalik
4-10 urte



Hazi, hezi eta ondo pasatu

Plazerra
Integrazioa
Lankidetzak
Askatasuna
Sormena
Partehartzea
Gatazka
bideratzailea

Animatzen al zara
era honetara jolastera?



Azaleko argazkia: Gari Garaialde

UDAL BERRIAK

- 4** Gutunak
- 6** Tokiko Gobernuari Galdezka
- 8** Iritziak
- 10** 2014ko udal aurrekontuak
- 14** Oñatiko 30.000 argazki zahar herritarren eskura jarri dituzte udal artxiboan
- 16** Txiki Txoko haur eskola berriua urtarrilaren 10ean inauguratuko dute
- 18** Artia mendiaren ordenazio plana

GURE HERRIAN

- 20** Larraitx Ugarte foru diputatuari elkarrizketa agintaldiaren erdian
- 24** Enpresa ekimenak: Joseba Pol
- 26** Labeldun txerriak Askazubin haziak
- 28** VI. eskaparate lehiaketako sariak
- 28** 600 euroko saria banatu du Txandak
- 29** Urtarrilaren 11n bilbora joateko deia egin du Tantaz Tanta ekimenak

KIROLAK

- 30** Kirol sariak. 2013ko herriko kirolari onenak saritu ditu Udalak
- 31** Ziklo kros proba ikusgarria San Martien jokatu da Oñatin
- 31** Profesionalen arteko eskubaloia partidua jokatu da Oñatin

KULTURA

- 32** BEXeko zorrtzi finalistek kantatuko dute Oñatin Errege bezperako bertso saioan
- 33** 'Aulki hutsak' dokumentala Oñatin
- 34** 'Hansel eta Gretel' haurrentzako ikuskizuna Santa Ana aretoan
- 35** Irrien Klubaren saio berriaren estreinaldia Antixena gaztetxean
- 35** Bideo emanaldi zikloa gaztetxean
- 36** Bigarren fasea jarriko da martxan ETEOko proiektuan
- 38** Antxiñako Fotografia



irritziak



Urte Berri On!



GUTUNAK

Gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorleraren izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Amets bat dut!

Xabier Arregi, Oñatiko alde zaharreko bizilaguna

Berrogeita hamar urte igaro dira, dagoeneko, Martin Luther King-ek modu erretoriko horretan lau haizetara zabaldu zuen desioa, nahia, aldarria. Eta hitz horiek gogora ekarri eta baliatu nahi ditut nire ametsa zuekin partekatzeko. Ametsa egia bilakatu zedin bidelagun asko izan zituen agurgarri baptistak eta bere jarraitzaileek, baina harri eta oztopo dexente ere topatu zituzten elkarrekin egiten hasi ziren luzea bezain bide malkartsuan. Afroamerikarren eskubide zibilaren aldarrian, ozenki eskatu zuten, modu askotara eta bereziki, justizia eta aldaketa. Bistan denez, ametsa ez da oraindik egia bihurtu!

Xumeagoa bada ere, eskubide zibilaren testuinguru horretan kokatzen da nire ametsa, aldarria izan nahi duen ametsa, guztiok dugun atsedenerako eta ongizaterako eskubidearen aldarria hain justu. Nire ametsean, Oñati herria eta bertako herritarrak ikusten ditut. Horiek dira nire ametsetako protagonistak. Norberaren aisialdiaz gozatuz, besteen eta guztien atsedenerako eskubidea errespetatu eta sustatzen dituzten balio zein jarrerak dituzten herritarrak ikusten ditut. Herriko kaleak maitatzen eta guztien ahalegin eta diruarekin hornitutako mobiliarioa zaintzen dituzten herritarrak. Autoa, noiznahi eta edozertarako erabili eta edozein lekutan aparkatu ordez, erabilera kontzientea izaten ikusten ditut nire ametsean. Lanerako zein aisialdi edota atsedenerako behar diren espazioak autoen zarata eta trabarik

gabeko herri eta kaleak ikusten ditut nire ametsen. Eta inguru horiek hondakinez garbi, makina-munstro-zaratatsu garbitzaileen beharrik gabe.

Gezurra badirudi ere nire ametsa ez da 1963an sortua, gaur egungo bizipen eta (kontradizioa izan badaiteke ere) nire amets-gaiztoetatik eratorritakoa baizik. Bere garaian Luther King-ek eta bere garaikideek izan zituzten bizipen haietatik beraien ametsa azaleratu zen bezala. Hori da nire ametsa. Eta nire aldarria. Haiek bezala, justizia soziala eta aldaketaren aldarria. Egunero zarata jasangaitzak jasotzen ditugunontzako justizia sozial, eta bereziki, aldaketa kulturala. Hain justu, Oñati, guztion nahi, gogo, ilusio eta ahaleginarekin Zero Zabor kulturaren bidean jarri dugun bezala, Zero Zarata kulturaren bidean ere jartzea nahiko lukeen aldarria, eta ametsa. Bidea luzea izango dela eta traba ugari topatuko ditugula ibilbidean zehar pentsa badaiteke, ziur nago, urratsez urrats eta horizonte berdin-

erantz ibilia eginez, egia bilkatuko dela nire ametsa!! Baina urrats horiek ez nituzke nik soilik eman nahi, Martinek bezala, herritarrok bidelagun izan nahiko nuke nik, nire ametsa Gure Ametsa bihur dadin.

Lourdes Idoiaga Urkiak lapurtu egin zuen

Guren Zumalde Auzmendi, Miren Intxausti Arregi, Ander Lizarralde Lizarralde eta Ibai Etxebarria Arrazola (San Martingo Etxe Okupatuko kideen izenean)

Azken boladan Lourdes isildu ere egin gabe dabil: demokrazia gora, eta demokrazia behera. Ezberdin pentsatzen dutenekiko errespetua eskatzen ere entzun diogu. Behin eta berriro. Eta guri zer pentsatua eman digu.

2003ko udal-hauteskundeetan,

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

ordea, inolako lotsarik gabe lapurtu zion Lourdesek zinegotzi-postua Ereitten herri-plataformari. Herritarrek EAJ-EA koalizioko 11 zinegotzi hautatu zituzten; Lourdes 14. tokian aurkeztu zen. Eta gero, herritarrek hautatu ere egin gabeko lehen alkatea izan zen. Frankismoko Reyes Korkostegiren ostean. Manu Egaña Txopitea, gutxienez, isil-isilik dago. Eta Lourdes asperra, matraka eman eta eman.

Horrek guztiak eman digu zer pentsatua guri. Agian, antzeko zerbait usteko du herritarrek hautatu zuten Ereitteneko zinegotzi hark. Edo Lourdes eta enparauek ertzantza neska-mutil nerabeen aurka nola bidali zuten akordatzaren diren guraso haiek.

Misio Taldeak, esker onez

Jose Antonio Urteaga, Parrokiako Misio taldearen izenean

Misio Taldeak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, abenduaren 15eko Gabonetako kontzertuan egindako diru-ekarpenagatik, orain arteko handiena. Batutako dirua, Mali-ko (Afrika) haurren elikadura bermatzea helburu duen proiektura bideratuko du Misio taldeak. Dagoeneko 24.000 euro batu dituzte, duela bi urte ezarritako helburuak betez. Misio taldeak eskerrak eman nahi dizkie, bereziki, Gabonetako kontzertuan parte hartu zuten musikariei. Eskerrak, baita ere, Udalarai, Ulmarri eta Natrarri, eta urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldietan izaten dituzten laguntzaile guztiei.

OHAR ETA DEIALDIAK

► Afari solidarioa urtarrilaren 24an

Parrokiako Misio Taldeak hiru hilean behin antolatzen ditu elkartasun afariak, eta hurrengo hilaren 24an izango da, ohi bezala, Bidaurretan, 20:30etan. Entsalada eta patata-tortila izaten da menua, eta afaltiarrek borondatea ordaintzen dute. Afari honetan batutako diruarekin amaiera emango dio Misio taldeak Mali-ko elkartasun proiektuari.

► Tenerifera 10 eguneko bidaia Pake-Leku elkartearekin

Otsailaren 14tik 23ra, Tenerifera hamar eguneko bidaia antolatu du Pake-Leku elkarteak. Urtarrilaren 3an jarriko dute programa osoa elkarteko taulan. Izena emateko egunak urtarrilaren 13, 15 eta 20a izango dira, 18:00etatik aurrera. Ordaintzeko azken eguna urtarrilaren 27a izango da. Otsailaren 5, 10 eta 12an txartelak banatuko dituzte. Bidaian parte hartzeko ez da derrigorrezkoa Pake-Leku elkarteko bazkidea izatea.

► Inauterietarako entsaioak abian

Martxoaren lehen ospatuko da aurtien inauterietako jai herrikoia eta, dagoeneko, entsaioak egiten hasteko ordua iritsi da, dantza eta koreografia ezberdinak ikasten joateko. Urtarrilaren 7an izango da aurreneko entsaioa, arratsaldeko 20:00etan, Oñatzen lokalean, Errekaldeko sotoan. Hortik aurrera, asteartero eta larunbatero (12:00) izango dira entsaioak. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



► Futbol saileko zozketako zenbaki sarituak

Aloña Mendiko Futbol sailak Gabonetan antolatzen duen errifako lehen bi sariek badute jabea. Lehen saria (8884), Gabon saskia, Angelines Egañarentzat izan da, eta bigarrena (6149), itsaski jana, Rosa Eizagirrerentzat. Hirugarren saria, bi lagunentzako afaria Zelai Zabalen, ez da oraindik agertu. Hauxe da zenbaki saritua: 2507 (ordezkoa: 4618).



HARITZA

- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotoa
- Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfnoa: 78 23 96

BATUAK S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50

GURRUST

TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



ARGI ESKASA BIDAURRETAN

? Udalak herriko zenbait kaletako argiak aldatu ditu, besteak beste Bidaurreta aurrealdeko pasealekuan. Nire ustez orain askoz ere argi gutxiago dago, eta zenbait unetan, gabaz, beldur pittin bat ere ematen du bertatik pasatzeak?

► Kutsadura gutxiago sortu eta dirua aurrezte aldera herriko gune ezberdinetan argiteria teknologia aldatu dugu lehen zeuden argi puntuak mantenduz. Puntu horietan argi nahikoa dagoen arren irispen txikiagoa dutenez Bidaurreta guneko 2 eremutan puntu bana jartzea aztertzen ari gara.

OLAKUAKO AHATEN URMAELA

? Olakuako ahaten egoera negargarria da. Horren aurrean zerbait egin beharko litzatekeela uste dut. Nik ahatak kendu eta dena sakon garbitu eta txukuntzea proposatzen dut; zuhaixka batzuk landatu, ur gabia jarri eta zisne pare bat eta ahata batzuk jartzea, eta gero jarraipena egitea.

► Gune honetako egoeraz jabeturik zuk proposatutako bidean neurriak hartu ditugu..

TABERNETAN ERRETZEA

? Tabernetan (Gaztetxia barne) erre ezin den legea indarrean badago, zergatik uzten da tabernetan erretzen. Horren aurrean ezer egiteko asmorik ba al dago?

► Tabakoaren legea eta bere jarraipena ez da udal eskumenekoa eta ezer gutxi egin dezakegu. Udaltzainak dauden ordutegian tabernaren baten norbait erretzen ikusiz gero ohartarazteko agindua dute baina oraindik ez da horrelako kasurik gertatu.

Tokiko Gobernuari Galdezka

HERRITARREN GALDERAK

‘Tokiko Gobernuari Galdezka’ atalaren helburu nagusia, herritarrek dituzten kezka eta galderei erantzutea da. Beraz, alkateari edo tokiko gobernu taldeari galderaren bat egin nahi badiozu, idatzi kontzejupetik@oinati.net helbidera



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 • Tel.: 943 25 01 40



- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoen konponketak

Jose Moyua kalea 16, beheka • Tel./Fax: 943 78 23 10
Mug. 615 74 94 94 • 20560 OÑATI



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



**Txantxiku
Ikastola**

Txikitxo Jardunaldiak

2014



**ZATOZ
IKASTOLARA**

ASTELEHENA MARTITZENA EGUAZTENA EGUENA EGUBAKOITZA ZAPATUA DOMEGA

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

 Anaia-arreben arteko jeloskortasuna eta beraien arteko gatazkak.

 Euskara, entra otro idioma en casa

 Eleanitz proiektua Txantxiku Ikastolan

 Gurasoentzako bilera informatiboa

 Bixar aretora!!! (Psikomotrizitatea)

 Ate Irekiak (Potxin eta Patxin pailazoan emanaldia barne)

 Storytelling (antzerkia ingelesez)

OHARRAK:

- Hitzaldiak guraso eta herritar guztiontzat irekiak dira.
- Hitzaldietan, haurtzaindegi zerbitzua izango da 8 urte arteko haurrentzat (horiek barne).
- Hitzaldiak 18:00etan izango dira, Txantxiku ikastolako aretoan.

ERKIDE
Euzkoako Lan Ekarpen, Irakasleak
eta Kideak Kooperatibak Federazioa
Federación de Cooperativas de
Trabajo Asociado, Empleo y Crédito de Euzkadi


ikastolenelkartea

gobernutik



Nerea Zubia - Bildu

TXALOKA EGITASMO BERRITUAREKIN DATOR...

Eguberritako magia iritsi da gure herriko txoko guztietara eta haurrak begiak zabal-zabalik eta adi pasatu dituzte urteko azken egunak. Olentzeroak eta Maridomingiak, aldiz, estresatu samar ikusi ditugu: jostailu hau egokia ote da? Opari gehiegi? Gutunean idatzitakoa erosiko diogu?

Eta egun hauek pasatu ondoren? Haurrek ba al dute jolaserako espazio fisikorik? Eta denborarik?

Ikastetxetik kanpo pasatzen dituzten orduak non eta zertan ematen dituzten hausnartzen hasiz gero, konturatzen gara, haurren "aisialdi" momentuak erabat gidatuak daudela, helduok erabakitzen dugu zer egin behar duten, nola... jolasaren arauak ere guk jartzeraino.

Urtarrilaren 20tik aurrera, Txaloka Ludotekak berriz ere bere ateak irekiko ditu, prezio askoz ere merkeagoan! Txaloka herrira zabalduko da eta herritarrek Txalokaren parte izango gara! Gure herriko haurren garapena gu guztion ardura delako.

Aisia, denbora-pasa hutsa baino haratagoko kontzeptu gisa ulertu beharko genuke, beharrezkoa da aisiari dagokion garrantzia ematea eta guk helarazi nahi ditugun baloreak sustatzen dituen aisialdi hezitzaile baten aldeko hautua egitea. Honen guztiaren baitan ireki zituen ateak orain dela 6 urte Txaloka Ludotekak. Bertatik pasatu diren haur eta gurasoak gustura aritu dira euskaraz jolasean. Baina, orain urrats bat haratago ematea dagokigula iruditzen zaigu. Gure ludotekari beste pintzelada bat emango diogu.

Haurrei beraien denbora librean zer egin nahi duten erabakitzeak aukera zabalduko diegu, galdetu egingo diegu. Hezitzaileek "laguntzaile" rola izango dute, ez dira gidari izango. Eta herri-dinamikan integratua egongo den proiektua izango da, herriko txoko desberdinak kolorez jantziko ditu, haurren eta herritarren parte hartzearekin haurrentzat egokiak diren espazioak berreskuratzeko apustu egitera goaz.

Urtarrilaren 20tik aurrera, Txaloka Ludotekak berriz ere bere ateak irekiko ditu, prezio askoz ere merkeagoan! Txaloka herrira zabalduko da eta herritarrek Txalokaren parte izango gara! Gure herriko haurren garapena gu guztion ardura delako.

oposiziotik



Lourdes Idoiaga - EAJ

AURREKONTUAK 2014

Abenduko Osoko Bilkuran, BILDuren Gobernuak 2014rako Aurrekontuak onartu zituen EAJ-PNVren aurkako botoekin. Aurkako botoa eman genuen, aurkeztutako 13 proposamenetatik erdia baino gutxiago onartu zigutelako eta baita beraien aurrekontu-politikaren hainbat aspektuekin bat ez gatzelako ere.

Gure proposamenak, **EAJ-PNVren programako ardatz nagusietan oinarritzen ditugu**: pertsonak eta gizarte politika, hirigintza atseginago eta bizigarriagoa, mugikortasun iraunkorra, eraginkortasun energetikoa, landa-garapena eta abar batetik, eta bestetik, **herritarrengandik jaso ditugun beste batzuk**.

Gizarte politikaren arloko eskariak egin ditugu: **gaitasun murriztua dutenen garraioari laguntzak ez kentzea, etxez etxeko laguntzak gehitzea** edo eta **Eguneko Zentroan plazak gehitzea** (sartu den proposamen bakarra).

Hirigintza- mugikortasuna- ingurumena ardatzetik, **argikuntza publikoaren hobekuntzan eta eraginkortasunean** inbertitzearen beharra azpimarratzen dugu eta ez dadila izan lanparak aldatzea bakarrik, (Bidaurretan bezala); bi urtez geldituta dagoen **herri barruko bidegorrien plangintzarekin** aurrera egitea; **Errekaldeko eraberritze lanekin** jarraitzeko diru partida bat jartzea; landa gunetako **oinezkoen paseo tokiak** hobetzeko **plangintza** bat egitea (argiteria, eserlekuak...Kilometroak-en ibilbidea, Ugarkalde-"Merenderora"- Olabarrieta), baina ez dituzte sartu.

Beraien aurrekontu-politikari dagokionez, ez gatoz bat Zabor **bilketako tasak "izoztearen" politikarekin**, izan ere bi urte hauetan, **400.000 € baino gehiagoko defizita** sortuko baitu, eta bide horretatik jarraitzeak, diru sarrera eta gastu arrunten orekari eragingo lioke, horiek markatzen baitute Diru kontuen sostengarritasuna.

Ez gatoz bat Gobernuak egin duen beste honetan ere, **diru sarrera berezietatik tira egin eta kontsumitu izana**, esate baterako, **Ur Jauziek emanda "erreserban" zeuden diruetatik** bi urtean 800.000 € kenduz. **Aurreko legealdian** ere bageneukan erreserba hori, hala ere, Foru Fondotik zetorkigun dirutik sarrerak izugarri murriztu ziren arren (-3,1 M€), -orain gertatzen ez dena-, **austeritate politika baten alde egin genuen eta diru hori**, behar oso berezietarako gordetzea erabaki.

Zuhurtzia defendatzen dugu, Aurrekontuen sostengarritasunerako elementu gisa.

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI
Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53
Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitatea**
publi@oinati.net



MANDELARI AGURRA

“

Hamarkadetako gorrotoaren ostean herria adiskidetzea lortu zuen



JOXE RUIZ

Hegoafrika eta munduko zati handi bat hunkitu duen agur luze eta beroaren ondoren, abenduaren 15ean lurperatu zuten Mandela bere sorterrian, Xhosa izeneko bere etniakoen aspaldiko ohituren arabera.

Bere herrikideek hasi zuten agurra, bere kasa, herrialde haietan ohi duten eran, malkoak eta dantzak, tristura eta poza uztartuz, Hegoafrika aske eta multietnikoaren aita bihurtu den 'Tata Madiba'ri esker ona eta miresmena adieraziz, kantu eta dantza artean.

Abenduaren 10ean estatu funerala egin zuten Sowetoko futbol zelaian, erlijio ezberdinetako (judutarra, hindua, musulmana, kristaua) ordezkariak otoizburu zirela, agintari ohiaren gogoak betez. Mandela goretsi zuen mundu mailako ehunka buruzagi ere bildu zen bertan, eta ohiz kanpoko keinuak ikusi genituen, hala nola, Barack Obama eta Raul Castroren arteko bostekoa, eta baita bitxikeria xebererik ere, zeinuen hizkuntzaren itzultzaile faltsuarena, esaterako.

Egun hauetan iritzi ezberdinak eta kontrajarriak entzun ditugu zenbait agintariren presentzia edo ausentziaren inguruan, gogoratuz, gaur Mandela goresten duen zenbaitek beste alde batera begiratu zuela **apartheid** garaian, edota beste batzuek ez dutela disidentzia onartzen beren herrialdeetan, edota 2008ra arte terroristen zerrendan agertu izan zela Mandela Estatu Batuetan. Ziur nago, Mandelak presentzia guztiak eskertuko zituela, eta ausentziak barkatuko. Gogoratu da, halaber, Mandelak borroka armatua erabili zuela garai batean, gaur egungo beste buruzagi batzuekin konparazio edo paralelismoak eginez. Baina ez naiz horretan sartuko.

Balio bezate lerro hauek aitorten eta omenaldi xume gisa, estatu gizonari, Afrikako Kongresu Nazionalako buruari, Bakearen Nobel sariari, eta, batez ere, gertuko pertsona irribarretsu eta onberari, kartzelan hogeita zortzi urte eman ostean, bere ametsa egia bihurtzeko asmoz eta gogoz irten zen gizonari; izan ere, berak lortu du hamarkadetako gorrotoaren ondoren herria adiskidetzea, eta **apartheid**-a sortu eta babestu zutenekin ere jasanbera eta eskuzabala den Hegoafrika aske eta multietnikoa eraikitzea.

HOMO SAPIENS

“

Generoa eraikuntza sozial bat da, patriarkatua oraina, eta artikulu hau feminismoaren apologia



AIMAR URIBESALGO

Gizonak dabilta kalean, baita tabernetan ere; gizonak telebista ikustean eta irratia entzutean; pelikuletako protagonistak ere beti gizonak dira, dudarik gabe. Gizonak gizonak ekoizturiko autoak gidatzen, gizonak eraikitako errepideetan; gizonak aurkituko dituzu elizan, meza ematen; eta futboleko, baloia ostikoka; eta ehizan, tiroka. Katolikoek beraien jainkoa bizar zuriko gizona irudikatzen dute, eta bere semeak bizar marroia zuen. Olentzerok opariak ematen dizkigu, eta Mari Domingi bigarren planoan dago. Bankuetako zuzendariak, enpresetako buruak, sindikalistak edo guardia zibilak; Arnaldo Otegi gizona da, eta Ernesto Guevara iraultza sozialarengatik hil zen, emaztea umeekin utziz; gizonak dira gizonen lagun, baita etsai ere. Ikastetxeetako historiako liburuetan gizonak agertzen dira heroi; politikari gizonak daude, eta gaizkile ankerrena ere gizona da. Gizon bat ikusten dut ispilura begiratzen dudak bakoitzean; nire anaia gizona da, baita nire aita ere. Gaztetxeetara joan eta gizonak asanbladetan, herri borroketara begiratu eta gizonak ugari, kontzertu punkietara joan eta gizonak kantari,

Kontzejupetik irakurri eta gizonak gizonen buruzko iritzia ematen. Kinttotan emakumeak gizonekin, baina ez gizonengatik. Eta ez dezagun ahaztu Corpus Cristi eguneko prozesioa.

Pena da bai, sukaldeak, emakumeen eszenatokiak izanik, ez direla inon ere protagonistak... eta zer!? Sukaldeak protagonistak badira ere, gizonak okupatu dituzte etxeko txoko pribatuetatik at: telebistako sukaldaritza programak adibide, edo elkarte gastronomikoak, edo kanpinetako barbakook. Generoa eraikuntza sozial bat da, patriarkatua oraina, eta artikulu hau feminismoaren apologia.

AMAIA
ARANZETA

IN MEMORIAM

Urte baten memorian, denboraren joan-etorrian, zenbat gauza biltzen ote diren... zenbait oroitza, bizitzako argazki memorian batzen ditugunak. Urte bati luzaro begira, 8760 ordu dituela jakinik, gauza asko egi bihurtu eta aurrera eramateko gai gara. Hala ere, zenbatetan kexa izaten gara, denborarik ez dugula, egunak luzeagoak balira... zerbait aldatu edo hobetu ahal izateko. Denbora zer den, egunak zer diren, zein den bizitzako, aurrera doan edo jada amaitu berri den urte honetarako buruan edo bihotzetan duguna... hala ere, denborak isilean dirau beti...

Horregatik idatzi gura izan diot amaitu berri den etapa honi, 2013a, alegia. Batzuentzat superstizioz beteriko urtea, arima-beltzen iturria izan dena. Besteendako, beste urte bat soilik, esanahirik gabeko denbora-tarte amaigabea. Denbora altxorra dela diote, eta bizitza, promesaz beteriko kaxa. Hala ere, maiz, desioak frustrazio bilakatzen dira, eta bizitza, komplexuegia, denbora guztiz aprobeztatu ahal izateko.

Eta orandik idazten diraut udazkenaren barrenean, urte hau amaitu dadin zai. Eta, 2013 hau amaitua izango balitz bezala dihardut, geratzen diren egunak buruan zenbatuz. Eta jada promesaz beteriko urte berrian amets dagit, memoria beteta bait dut atzean gelditu diren desio zapuatzuek, egi bihurtu ez diren promesa hutsez. Eta berriro ekin diot, amets egin eta urte berri honi itxaropenez begiratzen.

Argi berri bat piztu baita gu guztion aurrean; denbora-tarte berri bat. Isilean dirauen arren, oroitza eta argazki berri ugari eskainiko dizkiguna. Beraz, utzi ezazue memoria historiako liburu zaharrak berridazteko; "in memoriam" gogoratzea baino hobea baita beti, aurretik datorkigun guztiaz gozatu eta momentu txarrak betirako ahaztea. Carpe diem!



16,9 milioi euroko aurrekontua izango du Udalak 2014an

► Bilduk aurkeztutako aurrekontu egitasmoak %3,20ko igoera du iazkoarekiko. ► EAJk kontra bozkatu du.

16.963. 899 euroko aurrekontua izango du Udalak 2014an, iaz baino 526 mila euro gehiago (+%3,20). Abenduaren 19ko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak datorren urterako aurrekontuak, Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz.

Aurrekontu orekatua da, hau da, sarrerak eta gastuak parean dituen, baina, horretarako, 2,3 milioi euroko maileguaren beharra aurreikusten da. Hala ere, 2013. urteko likidazioa positiboa izatea espero da, eta, hala bada, 2014ko aurrekontuak parekatzeko beharko den mailegua txikiagoa izango da, ziurrenera.

Krisiak gogor astintzen jarraitzen duen honetan, enplegua eta hazkunde ekonomikoa sustatzea, gizarte zerbitzuak indartzea eta oinarritzko zerbitzuak mantentzea izango da udal gobernuaren lehentasuna hasi berri dugun urtean. Aurreko urteetan bezala, gastuei eusteko ahalegin berezia egin da departamentu guztietan, baina, hala ere, 2,4 milioi euro bideratuko dira inbertsioetara, iaz baino %4,57 gehiago. Hala, San Lorentzo (300.000€) eta Zubillaga (150.000€) auzoak eta Ramon Irizarreko plaza (150.000€) berritzeko partidak bereiztu dira.

EAJk ezezko botoa eman dio Bilduren aurrekontu egitasmoari, jeltzaleek egindako proposamen batzuk jaso barik geratu direlako, eta ez daudelako ados aurrekontuak osatzeko jarraitutako zenbait irizpiderekin (hondakinen tasa izoztu izana, Ur Jauzietako fondoa erabili izana...).

AURREKONTUAK DEPARTAMENTUKA

Komunikazioa eta partehartzea	164.122	(-%7,70)
Gizarte Zerbitzuak	1.973.753	(-%5,83)
Kirola	1.281.098	(+%2,45)
Kultura	1.160.444	(+%10,80)
Barne antolaketa	6.210.790	(+%3,81)
Sozioekonomia	585.379	(-%0,35)
Lurralde antolaketa	4.845.187	(+%1,42)
Aisialdi hezitzailea	743.124	(-%0,94)

Neke ekonomikoa nabari da

Krisia gurean gogor jotzen hasi zenetik seigarren urtea da, eta 2014ko aurrekontuak iazkoekiko %3,20 igotzen badira ere, 2009koekin alderatuz %8,9 txikiagoak direla gogoratu behar da, eta udal kontuhartzaileak bere txostenean adierazten duenez, “neke ekonomikoa” nabarmena da; eraikuntza arloa gelditu dago, eta beste zenbait zergatan ere (jarduera ekonomikoa, ondasun higiezinaren gainera...) nabari da krisiaren eragina.

Azpimarratzekoa da, hala ere, krisi garaian egonagatik, Udalaren aurrezki arrunta positiboa dela, departamentu guztiek egindako gastu-euste lanari esker. Baina, egia da, bestalde, aurrezki hori testinontiala dela (447 euro) eta, ondorioz, mailegu berria eskatu beharra dagoela inbertsioei aurre egiteko.

Horrenbestez, 2014ko aurrekontuetan aurreikusten den 2,3 milioiko mailegua kontratatuko balitz, urtea 5,2 milioiko zor biziarekin amaituko luke Udalak. Hala ere, esan behar da, Oñatiren zor bizi erlatiboa, Gipuzkoan biztanle kopuru beretsua duten herrien batzuekin alderatuz, dagoela beste herri batzuekin alderatuz.

2014ko EGITASMO NAGUSIAK

Lau ardatz nagusi ditu Bilduren aurrekontuak: PERTSONAK, AMA LURRA, KULTURA eta ASKATASUNA.

■ ENPLEGUA

Pertsonen arloan, **enplegua** sustatzea izango da helburu nagusietako bat. Ildo horretan, herriko **langabetuen asanblada** bat antolatzea sustatuko da, eta bertatik etor daitezkeen ekimen eta beharrei erantzun zaitza.

Bestalde, **15 langabetu** kontratatzea aurreikusten du Udalak. Lanaldi partzialeko kontratuak egingo dira, ahal den neurrian, jende gehiagori lagundu ahal izateko.

Langabetuei zuzendutako **orientazio zerbitzu** berria ere eskainiko da Oñatin bertan. **Formazio** arloan beriz, auto-nomoentzako ikastaroak (kudeaketa kontrola, on-line salmenta, tributazioa...) eta langabetuentzako trebakuntza (energiaren oinarriak) antolatuko dira.

Bestalde, herriko enpresa txiki eta ertainak, unibertsi-tatea eta Udalaren arteko elkarlanari esker, herriko **8 graduatu** jarriko dira lanean, Foro Sozioekonomikoak proposatutako garapenerako lau proiektu lantzen.

Bestalde, gazteak **ekin-tzailetasunean** trebatzeko lau saio egingo dira eskualde mailan, 240 bat gazteri zuzenduak.

■ MERKATARITZA

Udalak ahalegin berezia egin nahi du herriko merkataritza txikiaren alde. Hala, **Moneta Sozialaren** proiektua jarriko du abian udal langileekin; hau da, saldataren zati bat moneta sozialaren bidez ordainduko die, eta diru hori herriko denda eta zerbitzuetan gastatzeko izango da. Neurri honekin, Udalak 60 mila euro jarriko ditu zirkula-



Partehartzea oinarri. 2014ko udal aurrekontuak herritarrekin lankidetzan osatu dituztela azpimarratu du udal gobernu taldeak. Irailean hasi ziren batzar irekiak egiten, aurreko bi urteetako balantzea egin eta hurrengo bietarako egitasmoak finkatzeko. Buzenoa ere egin zuten herritarren ekarpenak jasotzeko (176 jaso zituzten), eta azkenik, tailer irekia egin zuten azaroaren 23an, 50 bat herritarren partehartzearekin, lehentasunak markatzeko.



IOSU LIZARRALDE /Bildu



Enplegua sustatzea eta gizarte zerbitzuak indartzea izango dira helburu nagusietako bi aurtengo aurrekontuetan

Herriko merkataritza txikiari laguntzeko Moneta Sozialaren proiektua jarriko dugu abian aurtan bertan, udal langileekin egingo dugun esperientzia piloto baten bidez

zioan herriko denda eta zerbitzuetan. Hurrengo fase batean, herriko enpresa ezberdinak ekimen honetara biltzen saiatuko da Udalak.

Bestalde, eskualde mailan **deskontu-bonoak** aterako dituzte, eskualdeko denda txiki, ostatu eta zerbitzuetan kontsumoa sustatzeko. Bezeroek %20ko aurrezkia lortuko dute, eta neurri honen bidez 50 mila euroko erosketa mugimendua eragingo da eskualdeko establezimenduetan.

■ ARRETA SOZIALA

Udal gizarte zerbitzuak indartzeko asmoz, zerbitzu arduraduna izendatu eta **gizarte laguntzaile** berri bat kontratatuko da.

Eguneko zentroan 5 plaza gehiago egokitzea eskatuko zaio Aldundiari. Bestalde, **Etxe Tutelatuen** proiektua garatu eta gauzatzen hasiko da San Martinen.

Etxebizitzaren alorrean, **alokairua sustatzeko** sentsibilizazio kanpaina egingo da. Bitartean, bigarren etxebizitza zigortzen jarraituko da.

Bestalde, **alokairu sozialera** bideratutako bi etxebizitza gehiago egokituko ditu udalak Olabartan Horretarako 100 mila euro bideratuko dira.

■ MUGIKORTASUNA

Lurralde antolaketa arloan Udalak prestatzen ari den **Mugikortasun Plana** izango da ardatz nagusia, eta berau garatzeko 200 mila euro bideratuko dira: 100 mila **bidegorri** sarea garatzeko; 50 mila **irisgarritasun** lanak egiteko, eta beste 50 mila **landa-auzoetako** ibilbide zaharrak berreskuratzeko.

Garraio publikoari dago-kionez, **LANBUSerako** zegoen dirulaguntza kendu eta, horren ordez, Oñatitik San Prudentziara orduerdiro doan autobus zerbitzua optimizatzeko asmoa du udalak, Foru Aldudniarekin elkarlanean.

Bestalde, aurtan bertan **Eskolabus** proiektua (herriko ikastetxeentzako autobus zerbitzu bateratua) abian jarriko da. Hasiera batean bi ikastetxe kontzertatuek parte hartuko dute ekimen

UDAL AURREKONTUAK - 2014

honetan. Horrekin batera, 'Eskolara oinez' izeneko proiektua garatuko da.

■ HIRIGINTZA

Hirigintza arloan, San Lorentzoko berritze lanekin jarraitzeko 350 mila euro bideratuko dira. Bestalde, Zubillaga auzoko berritze lanetarako 150 mila euro bereiztu dira, eta beste hainbeste Ramon Irizar kaleko parkea berritzeko.

■ INGURUMENA

Hondakinen arloan, gaur egun martxan dauden **auzo-konposta** guneen erabilera optimizatuz eskaera eginga duten familia gehiagori parte hartzeko aukera emango zaie.

Bestalde, **errekak** garbitu eta inguruak txukuntzeko programarekin jarraituko da.

Lehen sektoreari dagokionez, **bertako produktuen** kontsumoa sustatuko da, eta **aisialdirako** baratzen proiektua martxan jartzeko 50 mila euro bideratuko dira.

Bestalde, **Artia** mendiaren ordenazio plana egingo du Udalak, kontserbazioaren aldeko irizpideetan oinarritutako **baso politika** berria aplikatuz.

Eredu energetikoari dagokionez, **argiteria publiko**aren efizientzia energetikoa hobetzeko plana garatuko da; orain arte egindako hobekuntzei esker lortutako aurrezkia eta 100 mila euro inbertituko dira. Ildo berean, udal eraikinetako **efizientzia energetikoa** hobetzeko azterlana egin ondoren, udaletxe-ko proiektua garatuko da.



MIKEL BIAIS /Bildu



San Lorentzoko berritze lanekin jarraituko dugu (350 mila euro); Zubillaga auzoa (150 mila) eta Ramon Irizarreko parkea (150 mila) ere berrituko ditugu



NEREA ZUBIA /Bildu



ETEO zaharreko proiektua lantzen jarraituko dugu; aurten 50 mila inbertituko ditugu musika sormenerako gunea egokitzeko bertan

herritarrak euskara eta ingezioaren inguruan biltzen dituen). Herriko **merkataritzan** euskararen erabilera areagotzeko ekintzak ere martxan jarriko dira.

Bestalde, udal barneko erabilera planari jarraipena emanez, barne neurketa egingo da, 2015ean **Bikain** ziurtagiria jasotzeko helburuarekin.

■ KIROLAK

Kiroldegiko **tenis pista** estali eta Larrañako futbol zelai berriari **argiteria** jarriko da.

Bestalde, egungo kirol eskaintza optimizatu eta ikuspegi estrategikoarekin hobetu ahal izateko, kirol-gune, azpiegitura eta baliabideen **azteerketa** sakona egingo du udalak aurten.

Emakumeen kirola sustatu alde **Emakumeen Bira**-ko etapa bat Oñatin izango da.

■ GAZTERIA

Gazteria arloan, eginda dagoen **ekintza planaren** zirraborra gazteekin kontrastatu eta garatuko da, eta plan horren baitan **aisialdi lokalen** gaia landuko da, eraginpeko agente guztiekin.

Berdintasunaren arloan ikastetxeetan eta udal teknikariekin egiten ari den formakuntza lanarekin jarraituko da. **Migrazioaren** arloan aniztasunari buruzko azterlana garatuko da.

Hirugarren adinari dagokionez, 'Nagusi' programa garatuko da, belaunaldi, genero eta sektore ezbedien arteko esperientzia-transmisioa bultzatzeko ekintzak antolatuz.

■ HEZKUNTZA

Hezkuntza arloan, Udala eta herriko ikastetxeen arteko elkarlanari segida emango zaio **Hezkuntza Mahaiaren** bidez. Aurten bi egitasmo nagusi egongo dira: **Eskolabus** proiektua abian jartzea, eta **Herri Curriculum** lantzen hastea.

Bestalde, apustu inportantea egin nahi da haur eta nerabe etorkinen **integrazioan**, eskaintza zabala eta kalitatezkoa eskainiz. Ildo horretan, 36 mila euroko diru atala bideratuko da **aisialdi hezitzaileko** ekintzak aurrera ateratzeko; besteak beste, gizentasuna, sedentaris-moa, sexualitatea, kulturartekotasuna eta aukera berdintasuna bezalako gaiak landuko dira.

■ KULTURA

Kultura arloan, **ETEO**ko proiektua lantzen jarraituko da, eta 50 mila euro bideratuko dira, **musika-sormen** gunea egokitzeko. Bienbirtatean, eraikinaren azterketa tekniko egingo da, eta etorkizunean eraikina funtzionamenduan jartzeak suposatuko duen karga ekonomikoaren gaineko azterketa egingo da.

Herriko kultur taldeei zuzendutako **dirulaguntza deialdi** irekia egingo da.

■ EUSKARA

Euskararen arloan, martxan diren zenbait egitasmo indartuko dira: **Mintzaleguna**, gurasoekin **hizkuntza jarrerak** lantzeko tailerrak, eta hasi berria den **Auzoko** egitasmoa (etorkinak eta

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

UDAL AURREKONTUAK - 2014

■ **OPOSIZIOA** / EAJ

“ Ez gatoz bat Bilduren aurrekontu politikarekin



EAJk gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuen aurkako botoa eman zuen, eta hala arrazoitu zuen Lourdes Idoiaga bozeramaleak. “guk aurkeztutako hainbat proposamen ez dituzte aintzat hartu eta, bestalde, ez gatoz bat Bilduren aurrekontu politikarekin”. Ildo honetan, hondakinen tasa bigarren urtez jarraian izoztu izana kritikatu zuen Idoiagak, horrek Udalaaren aurrekontuetan 450 mila euroko defizita eragingo baitu.

Bestalde, ‘Ur Jauziak’ udalaren enpresako fondoan pilatuta zegoen erreserbatik bi urtetan 800 mila euro (300 mila 2013an eta eta 500 mila 2014an) hartu izana ere ez dute begi onez ikusten jeltzaleek; “2009an, Foru Fondoaren jeitsiera izugarria izan zenezan (1,5 milioi euro) diru hori erabiltzeko aukera aztertu genuen, baina, horren ordez, Austeritate Plana egin eta fondo hori egoera larriagoetarako uztea erabaki genuen” azaldu zuen Idoiagak.

Fondo horretara jo beharrean, zerga eta tasak orokorrean neurtuta eguneratzea proposatzen du EAJk, helburu

“ Ez gaude ados honakinen tasa izoztearekin, eta ez dugu begi onez ikusten Ur Jauziak enpresaren erreserba fondotik 800 mila euro hartzea

“ Errekalde eta San Juan kale inguruetako (Unibertsitate aldea...) berritze lanekin jarraitzea proposatu dugu

zigortzailerik gabe, udal aurrekontuen oreka eta egonkortasuna bermatzeko helburuarekin.

PROPOSAMEN KONKRETUAK

Gobernu taldeari egin dizkioten proposamen konkretuak ere aipatu zituen Idoiagak, EAJren programa eta herritarrek egindako eskaera eta

iradokizunetan oinarrituta betiere.

Gizarte politikaren arloan, EAJk proposatu du **Eguneko Zentroan** bost plaza berri gehitzeko eskaera luzatzea Aldundiari, eta **ezinduen garraioa** ordaintzeko diru partida (33 mila) mantentzea. Bilduk 19 mila eurotan uztea erabaki du.

Energiaren arloan, **kaleko argiteriaren** eraginkortasuna hobetzen jarraitzeko 100 mila euroko diru atala jartzea eskatu du EAJk. Ildo horretan, guneko bakoitzerako proiektu zehatza lantzea eskatu du, lanparak aldatzera mugatu barik, Bidaurretan egin den moduan.

LANBUS zerbitzua mantentzea ere eskatu du EAJk, alternatiba zehatzik ez dagoen bitartean, eta azken bi urteotan gelditu egon den herri barruko **bidegorri sarea** osatzera 100 mila euro bideratzea.

Hirigintza arloan, **Errekalde eta San Juan kale** inguruko (Unibertsitate aldea) berritze lanekin jarraitzea eskatu dute jeltzaleek. Bestalde, herriko auzuneetan jendeak **paseatzeko** erabiltzen dituen ibilbideak egokitzeko (argiteria, bankuak...) proiektua egiteko 30 mila euroko diru atala proposatu du EAJk. ‘**Agenda 21**’ programarako 35 mila euroko diru atala ere eskatu du (15 milakoa onartu dute) eta aurreko agintaldian sinatutako Alkateen Ituneko ekintza planareko 30 mila euroko atala eskatu dugu, baiha ez dute onartu.



IRAZOLA

Okindegia

Larraña auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Baserriko ogia, egurrezko labean

Turismo bulegoa eta Arrikruzeko koba kudeatuko duen enpresa kontratatze deialdia egin du Udalak

Udalaren menpeko den Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak deialdi irekia egin du herriko turismo zerbitzu integralak kontratatze asmoz. Beste modu batera esanda, turismo bulegoa eta bertako San Migel errota, eta Arrikruzeko koba kudeatuko dituen enpresa kontratatu nahi da.

Kalitateko bi baliabide turistiko eskaintzeaz gain, bisitarien informazio-eskari eta gidaritza-beharrei erantzutea, eta Oñatik dituen bestelako interes puntuak eta turismo zerbitzuak erakutsi eta sustatzea izango da enpresaren zeregina. Oñatiko turismoa garatzeko interesgarriak izan daitezkeen bestelako jarduerak ere baloratuko dira.

Udalak 97.000 eurotan (BEZ kanpo) finkatu du eskaintzaren gehienezko prezioa lehen urterako. Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, beste bi luzatzeko aukerarekin. Eskaintzak egiteko 15 eguneko epea egongo da, deialdia GAOn agitaratzen denetik. Udal bulegoetan eta www.oinati.eu webgunean eskuratu ahal izango da baldintza zerrrenda osoa.

30.000 ARGAZKI ZAHAR

herriarren eskura jarri dituzte udal artxiboan

Udal artxiboak gordetzen dituen Oñatiko argazkiak kontsultatzeko gune bateratua egokitu dute udaletxeko goiko solairuan



XX. mende hasierako argazkiak eta Jesus Mari Arzuaga nahiz Andres Arlanzonaren argazki funtsak daude ikusgai, besteak beste

Udal Artxiboak Oñatiko argazki zaharren bilduma ezberdinak gorde eta kudeatzen ditu; hala nola, XX. mende hasierako irudi bilduma (Lizaur arkitektoa, Antia jauregia eta Socorroko markesaren fonodetakoak), edo 'Oñatiko Historia eta Arte Bilduma' libururako ateratakoak, edo Jesus Mari Arzuaga eta Andrés Arlanzón zenak Udalaren esku utzitako argazki funtsak, besteak beste. Danera, ia 30.000 erregistroz osatutako argazki ondare interesgarria, gure herriko gizaldi oso bateko historia, artea eta, bereziki, gizarte bizitzaren erakusgarri.

Euskarri ezberdinetan (kristalezko plakak, negatiboak...) zeuden argazki horiek guztiak digitalizatuz joan dira artxiboko arduradunak, eta digitalizatu ahala, herritarren eskura ere jarri izan dituzte Interneteko webgune ezberdinetan, hala nola, Eusko Ikaskuntzaren www.euskomedia.org atarian eta Foru Aldundiaren www.guregipuzkoa.net-en.

Baina, jakina, argazkiak atari ezberdinetan egoteak nahasmena eragiten zuen erabiltzaileen artean; beraz, orain argazki horiek guztiak (30.000 inguru) kontsultatu ahal izateko gune bateratua egokitu dute udaletxeko goiko solairuan,



Kiroldegia eraikitzeko lanak (Arlanzon argazki funtsa).

artxibategiaren ondoan dagoen ordenagailuan.

Horretarako, udal artxibozainak datu-base bateratua prestatu du, Euskomedia Fundazioaren laguntzarekin, software llibrean oinarritutako *Coppermine Photo Gallery* programarekin egindakoa, argazkiak modu errazean kontsultatu ahal izateko.

Lau multzo handitan antolatuta daude argazkiak: 'Arzuagaren funtsa' (15.000 erregistro inguru), 'Arlanzonaren funtsa' (10.000 inguru), 'Oñatiko Historia eta Arte Biluma' (472 argazki), eta 'XX mende hasierako argazki zaharrak' (551 argazki). Dena den, bilaketa aurreratuak egiteko aukera ere badago hitz gakoak (egilea, gaia, urtea...) adierazita.

Argazki gehienek deskribapen testu bat daukate, baina, kasu askotan, azaleko deskribapenak dira; beraz, argazkiak kontsultatzera doazen herritarrek infor-

mazioa osatzeko aukera izango dute, erregistratutako erabiltzaile gisa izena ematen badute.

Udalak Gipuzkoako Aldundiaren 'IKT-Udalak' programako dirulaguntza (4.646€) jaso du proiektu hau aurrera ateratzeko; kostu osoaren %60. Argazki gehiago digitalizatu ahala, datu-basean sartuko dituzte, herritarren eskura jartzeko.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



Portu Kalea 5
20560 Oñati
Gipuzkoa



Tel.: 943 78 12 65

943 78 33 97

Faxa: 943 78 07 85

Udaletxeko goiko solairuan, artxiboaren ondoan dagoen ordenagailuan kontsulta daitezke argazki zaharren bildumak



ARGAZKIAK IKUSTEKO

Edozein herritarrek kontsultatu ahal izango ditu argazkiak udaletxeko goiko solairuan dagoen ordenagailuan (goiko irudia). Astelehenetik ostiralera egin ahal izango dira kontsultak, udaletxea zabalik dagoen orduetan (09:00-21:00). Ez da beharrezkoa aurrez txanda hartzea.

Kopiak eta erabilera arauak

Argazkiak kontsultatu ez ezik, argazkien kopia digitalak egiteko aukera egongo da, artxibozainari eskatuta eta dagokion tasa ordainduta (0,50€ argazki bakoitzeko).

Debekatuta dago argazki horiek helburu komertzialekin erabiltzea, edota hirugarren bati saltzea. Artxiboko argazki hauetakoren bat erabiltzen denean, autorearen izena eta jatorria (udal artxiboa) aipatu beharko dira, derrigorrez.

Gidabaimena euskaraz ateratzea saritu du Udalak

Euskararen normalizazioan urrats berriak eman asmoz, gidabaimena euskaraz atera ahal izateko ikas-materiala euskaratu zuen Mankomunitateak, eta hori sustatzeko 350€ko saria zozkatzen du urtero Udalak gidabaimena euskaraz ateratzen duten herritarren artean. Bukatu berri den urtean zehar **33** gaztek gairitu dute azterketa teorikoa euskaraz (gidabaimena atera duten guztien **%65**), eta **Ander Aberasturri** egokitu zaio 350€ko saria. Duela bost urte (2009) **%10**ek atera zuten gidabaimena euskaraz.



Udaleko euskararen erabilera areagotzeko bost urteko plana onartu du udalbatzak

Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko bost urterako (2013-2017) plangintza egin du Udalak, UEMak (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) ezartzen dituen hizkuntza irizpideak kontuan hartuz.

Planaren helburu nagusia da Udalean euskararen erabilera areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bezala eta bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Plana diseinatu aurretik Udalaren gaur egungo hizkuntza erabileraren diagnostikoa egin da. Hala, adibidez, gaur egun Udalean lanean diharduten 71 langileetatik 65ek dute egiaztatuta dagokien hizkuntza maila. Udalak dituen baliabide tekniko eta pertsonalez gain, irudi korporatiboa, barne harremanak eta kanpo harremanak ere aztertu dira diagnostikoa osatzeko.

Diagnostikoa horren arabera, UEMak bereizten dituen lau mailetatik ('Abian', 'Magalean', 'Gora Bidean' eta 'Tontorrean') hirugarrenean dago gaur egun Oñatiko Udala, hau da 'Gora Bidean', eta helburua izango da, bost urte barru 'Tontorrean' mailara iristea. Horretarako, hainbat helburu estrategiko finkatu dira arlo ezberdinetan: udalaren irudi korporatiboa (webgune eta sare sozialak, hizkuntza paisaia, adierazpenak...); barne harremanak, ahozko nahiz idatzizkoak; kanpo harremanak (herritarrekin, zerbitzu enpresekin, baimenak, dirulaguntzak...); udal baliabideak (langileen hizkuntz gaitasuna, aplikazio informatikoak, telefonia, espediente ereduak...)

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA | TEL/ FAXA: 943 78 14 59
20560 OÑATI (GIPUZKOA) | limabar@euskaltel.net

www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba

943 781 217

kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

TXIKI TXOKO HAUR ESKOLA handitzeko lanak bukatu dituzte



► Bi gela berri egokitu dituzte eraikin nagusia eta psikomotrizate gelaren arteko gunean

► Urtarrilaren 10ean inauguratuko dute. Herriar guztiak daude gonbidatuta instalazio berriak ikustera

Amaitu dituzte Txiki Txoko Haur Eskola publikoa handitu eta egokitzeko lanak. Zehazki, 90,40m²-ko espazio berria egokitu dute, eraikin nagusia eta psikomotrizitate gelaren artean zegoen terrazan (*ikus goiko irudia*).

Espazio berrian 1-2 urteko haurrentzako bi gela eder, komuna eta logela egokitu dituzte. Zona berri guztian zoru erradiatzailea (zorupean dagoen kalefakzio sistema) jarri dute, kontuan hartuta haurrek denbora asko ematen dutela lurrean eserita eta jolasean. Gainera, gela guztiek izango dute irteera berdegune-jolaslekura.

Gune berriarekin irabazitako espazioari esker, eraikin nagusian ere hainbat egokitzapen egin dituzte; hala, 0-1 urteko haurrentzako sehaska geletan *office* bat egokitu dute. Haurrentzako jantokia eta langileen bulegoa ere egokitu eta handitu dituzte, eta zenbait azpiegitura ere (saneamendua, argindarra, ura...) berritu dituzte. Bestelade, biltegi bat ere egokitu dute psikomotrizitate gelaren ondoan.

Egokitzapen lan hauei esker, aurrerantzean 0-2 urte arteko 42 haurrentzako tokiak egongo da Txiki Txoko haur eskolan, lehen baino 9 gehiago.

INAUGURAZIOA ETA ATE IREKIAK

Urtarrilaren 10ean, ostirala, arratsaldeko 18:00etan, inauguratuko dute Haur Eskola berriua. Zapatuan (urtarrilak 11), 12:00etatik 14:00etara eskola zabalik egongo da eta herriar guztiak daude gonbidatuta ekipamendu berriak ikustera. Gogoratu, urtarrilaren 13tik 17ra matrikula epea zabalduko dela,



Bi gela eder egokitu dituzte espazio berrian.
Gela guztiek dute irteera zuzena berdegune-jolaslekura



M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIENTAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

ATEZ ATEKOA: ZALANTZAK ARGITZEN

Bidali zure zalantza edo galdera helbide honetara: kontzejupetik@oinati.net

► HILDAKO ANIMALIEN HONDARRAK EREFUSARA BOTA BEHAR DIRA

Landa-guneetako bizilagunei gogorarazten zaie, baserrietan hiltzen diren oilo, koneju, arkume eta bestelako animalien hondarrak (lumak, narruak, hankak, tripak...) errefusaren ontzira bota behar direla, eta ez organikora.

► ORGANIKOEN EDUKIONTZIRA EZ DA PLASTIKOZKO POLTSARIK BOTA BEHAR

Landa-guneetako ekarpen-guneetako organikoek edukiontzietan plastikozko poltsak azaltzen dira. Beraz, gogorazi beharra dago, berriz ere, organikoek kontenedorera ez dela plastikozko poltsarik bota behar; nahi izanez gero poltsa konpostagarriak erabili daitezke, edo, bestela, hondakinak zuzenean hustu, kubo marroitik edukiontzira. Poltsa konpostagarriak erabili nahi dituenak atez ateko bulegoan (Kale Zaharra, 14) daude salgai.

► KUBOAK ATERA ETA ERRETIRATZEKO ORDUTEGIA ERRESPETATZEA ESKATZEN DA

Herritarrei eskatzen zaie errespetu dezatela kubo edo ontziak esekitokitara atera eta erretiratzeko ordua.

Gororatu, negu partean arratsaldeko 18:00etatik 23:00ak bitartean atera behar direla. Hurrengo goizean ontziak ahal den azkarren erretiratu behar dira.

► GARBIGUNE IBILTARIAK KOKALEKU BERRIA

Etxean sortzen diren hondakin arriskutsuak (aerosolak, bonbilak, pilak, termometroak, motore olioak, bateriak, pinturak, erradiografiak...) batzeko Mankomunitateak hamabostero jartzen duen Garbigune Ibiltariak kokaleku berria izango du aurrerantzean: azokaren atzealdeko biribilgunean (kiroldegi aldera). Urtarrilean birritan egongo da bertan: hilaren 9an eta 23an. Ordutegia: goizeko 10:30etatik iluntzeko 21:00ak arte.



Lana bilatzeko orientazio zerbitzu berria Oñatin

Lanik gabe dauden herritarrei zuzendutako orientazio zerbitzua eskainiko du Udalak urtariletik aurrera, Mankomunitatea eta Lanbiderekin elkarlanean. Orientazio zerbitzu hau Udalaren Enplegu departamentuaren bulegoan (Bidebarrieta 12) emango da asteazkenetan. Mankomunitateko orientatzaile bat etorriko da astero Oñatira, eta lana bilatzeko lagungarria den informazio pertsonalizatua emango die hala nahi dutenei: lan-elkarrizketarako prestaketa, curriculumak edo aurkezpen gutunak prestatzeko laguntza, lana bilatzeko online baliabideak, enplegu baliabideen

Orientazio zerbitzu hau Oñatin jaso nahi dutenek txanda eskatu behar dute 943793090ra deituta

inguruko informazio zabal...

Gainera, Mankomunitateko Enplegu Zentroaren bidez lan informazio eguneratua jasotzeko aukera egongo da: lan eskaintzak, formakuntza programak, lan-deialdi publikoak, praktika eta beka deialdiak, atzerrian lana...

Orientazio zerbitzu hau Oñatin jaso nahi dutenek txanda eskatu behar dute 943-793090 telefonora deituta, edo orientatzailea@debagoiena.net helbidean.

Txatxilipurdi elkarteak kudeatuko du ludoteka urtariletik aurrera

Txatxilipurdi Elkartea izango da urtariletik aurrera Txaloka ludoteka, udaleku irekiak eta bertakotze programaren ardura izango duena. Udalak egindako deialdi publikoa irabazi ostean.

Txaloka Ludotekan egin beharreko egokitzapenak tarteko proiektu berriak urtarilaren 20an irekiko ditu ateak. Ate irekiak izango dira urtarilaren 20tik 31ra. Egun zerbitzuaren erabilgaitza diren familiak bilera batera deituko dira zerbitzuan izango diren aldaketen berri zuzenean jasotzeko.

Urtarrilaren 20tik 31ra ate irekien egunak izango dira ludotekan

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIAK ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorentzo 4 behe | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com


Artia mendiaren Antolamendu Plana egingo du Udalak

► Baso politika berria aplikatzen hasiko da Udala. Koniferoen ordez bertako landaretza bultzatuko da, bereziki haritza, eta ez da pista berririk zabalduko

2013ko otsailean 'Basogintza Herrijorran' prozesu partehartzailean herri onurako mendietan aplikatu beharreko baso politikaren printzipioak jaso ziren (ikus ondoko taulan).

Orain, irizpide edo printzipio horiek aplikatzen hastea erabaki du Udalak, Artia mendiaren ordenazio edo antolamendu plana eginez. Horretarako, Eguzki-lhintza enpresaren zerbitzu teknikoak kontratatatu du Udalak 19.593 eurotan, antolamendu plana egiten laguntzeko. Besteak beste, Artia mendian dauden zuhaitz mota ezberdinen inbentarioa egin, eta hauen kudeaketan jarraitu beharreko araudia jasoko da bertan.

Artia mendiaren antolamendu plana Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek in elkarlanean egingo da, eta Oñatiko herritarren partaidetza ere sustatuko da.



782 hektareako azalera du Artia mendiak

BASO POLITIKARAKO IRIZPIDE NAGUSIAK

- Egur-ekoizpena zuzendutako konifero landaketa berririk ez egitea.
- Bertako landaretza bultzatzea, batez ere Quercus generokoak, eta bereziki haritza.
- Zuhaitzak landatzen ibili beharrean, birsorkuntza naturala bilatzea, plangintza baten barruan beti ere.
- Pista berririk ez zabaltzea, eta Parke Naturalean dauden pisten erabilera mugatzea.
- Bioaniztasunaren azterketa bultzatzea (bertako fauna eta flora).
- Su-egurra atera bakarrik mendiak ematen duena, ez herritarrek eskatzen dutenaren arabera...

Etxebizitza libre gehiago, baina txikiagoak eraikiko dituzte San Martin gunean

San Martin guneko auzune berria garatzeko 2006an onartutako Plan Partziala aldatzea onartu du udal gobernu taldeak, partzela libre-etako jabe diren enpresa eraikitzaileen eskaera aintzat hartuz.

Bere egunean sinatutako hitzarmen urbanistikoaren arabera, San Martin gunean babes ofizialeko 196 etxebizitza eta tasatutako 11 eraiki dituzte. Horiez gain, 99 etxebizitza libre eraikitzeko aukera jasotzen zen, 6 etxebloketan banatuta, baina horietatik bloke bakarra (16 etxebizitza) eraiki da, eta beste batuen egitura.

Bere egunean onartutako Plan Partzialaren arabera, merkatu libreko etxe hauen batzuek besteko azalera 145m²-koa zen, eta, jakina, gaur egungo krisi egoeran bideraezinak dira.

Horren aurrean, partzela horien jabe diren Sanmartinberri S.L., Mojasoro S.L. eta San

Martinaldea S.L. enpresek etxebizitza kopurua aldatzeko eskaera egin dute, eraikigarritasuna handitu gabe; hau da, etxebizitza gehiago eraiki nahi dituzte, baina txikiagoak (gutxienez 85m²-ko azalera eduki beharko dute).

Udalak onartu egin du eskaera eta, hala, hitzarmen berriaren arabera, San Martin guneko partzela libre-etan eraikitzeko geratzen diren 83 etxebizitzaren ordez 132 eraiki ahal izango dituzte, baina eraikigarritasun osoa (12.195m²) aldatu barik.

PREZIOAK MUGATU DITUZTE

Hitzarmen berrian, etxebizitza libre hauek izango duten gehieneko prezioa ere mugatuta geratu da; hala, babes ofizialeko etxebizitza baten salneurria 1,7 aldiz handitua izan ahalko da, gehieneko, etxe libre hauen prezioa.

IMSERSOren bainuetxe programan izena emateko epea zabalik

Urtero bezala, erretiratu eta pentsiodunek bainuetxeren batean 12 edo 10 eguneko egonaldiak egiteko aukera izango dute IMSERSOren Termalismo programari esker.

Bi txanda egoten dira: otsailetik abuztura, eta irailetik abendura. Lehen txandan joan nahi dutenek, urtarilaren 16a baino lehen eman behar dute izena; bigarren txandan joateko berriz, maiatzaren 16a baino lehen.

Udal Gizarte Zerbitzuen bulegoan (Bidebarrieta 12) eskura daitezke izen-emate orriak.



EURI TANTETAN
EGUZKI IZPITAN,
IRUDIMENAREN
OSTADARRA:

ELKAR HEZI

ATE IREKIAK: OTSAILAK 1 (10:30etik aurrera)



Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza :

Arantzazu kalea 18, tlf: 943 71 82 72

DBH eta Batxi: Santa Marina plaza 2, tlf: 943 78 28 70



ELKARRIZKETA | LARRAITZ UGARTE ZUBIZARRETA

Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Mugikortasun diputatua

“Erakusten ari gara posible dela beste modu batean gobernatzea, bai gauzak egiteko moduan, eta baita baliabideak banatzeko orduan ere”

Bi urte eta erdi igaro dira EH Bilduk Foru Aldundiko gobernua eskuratu zuenetik. Larraitz Ugarte (Oñati, 1976) da gobernuko bozeramalea eta berarekin hitz egin dugu bi urte hauetako esperientziaz, eta puri-purian dauden gaien inguruan: ‘Arkupe’ sistema, errauskailua, fiskalitatea...

Bi urte eta erdi igaro dira diputatu kargua hartu zenuenetik. Zer nolako sentazioak utzi dizkizu orain arte egindako lanak?

Esperientzia oso aberasgarria izaten ari da, baina oso gogorra, era berean. Azken batean, bizitza anonimo batetik eta niretzat bokazionala den lanbide batetik —abokatu bulegoa du Larraitzek eta eskolak ematen ditu unibertsitatean— eskenatoki publikora jauzi egin behar duzu eta, egia esan, hasieran zalantza handiak izan nituen.

Duela bi urte ez zitzaidan burutik pasatu ere egiten arlo instituzionalean lan egin nezakeenik, aurretik ‘kontaminatuta’ nengoelako eta, beraz, ezin nintzelako hautetsia izan. Baina, bapatean, EH Bilduk hauteskundeak irabazi zituen, gobernua osatu behar zen, eta onartu egin nuen ardura, militante bezala egin beharreko zerbait zela pentsatu nuelako, eta erronkak gustatzen zaizkidalako.

Gipuzkoako Foru Aldundia da Ezker Abertzaleak gobernatzen duen lehen instituzio handia, eta zalantzak zeuden zuen gaitasunaren inguruan. Asmatzen ari al zarete?

Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dut EH Bildu dagoela gobernuan, eta koalizioa Ezker Abertzalea baino

gehiago dela. Hori argi utzita, bai, badirudi hemen pertsona eta alderdi politiko jakin batzuek gestiorako gaitasun natural bat dutela, odol urdinekoak direla garai bateko monarkietan bezala, eta gu odol gorrikook, ez omen ginen nahikoa kategoriakoak gobernua hartzeko. Lehen egunetik izan ditugu frankotiradore pilla bat alde askotatik, herritarrak beldurtu nahian; paralizatu egingo zela guztia, mundua amaitzera zihola, kaosa etorriko zela...

Baina gu ari gara erakusten beste eredu bat daukagula. Herritarrek aldatketaren alde bozkatu zuten hauteskundeetan, eta, beraz, orain arte ezagutu dugun eredua aldatzera gatoz gu; erakustera posible dela beste modu batean gobernatzea, bai gauzak egiteko moduan, bai gizarte antolatze moduan, eta baita gure baliabideak banatzeko garaian ere.

Beste garapen eredu bat posible dela uste dugu; garapenak ez du zertan lotuta egon behar beti azpiegitura erraldoiekin, krisi egoera honek erakutsi digun moduan. Garapena askoz ere iraunkorragoa izan behar dela uste dugu.

Agintaldi erdiko balantzea egiterakoan esan zenuten Gipuzkoa beste norabide batean jartzea lortu duzuela, eta



“Lehen egunetik izan ditugu frankotiradore pilla bat alde askotatik, herritarrak beldurtu nahian; paralizatu egingo zela guztia, mundua amaitzera zihola, kaosa etorriko zela...”

gobernatzeko beste modu bat badagoela erakutsi duzuela. Zertan da desberdina zuen gobernatzeko modua? Guk garbi daukagu, gizarte justo bat eraikitze beharrezkoa dela sektore publiko indartsu bat edukitzea, eta horretan ari gara eta jarraituko dugu.

Fiskalitate arloan ere ahalegin handia egiten ari gara zerga politika progresibo eta ekitatiboak bultzatuz, gehiago daukanak gehiago emanez, eta iruzurraren aurkako borrokan tinko eginez. Obligazioetatik ihes egiteko dauden zirrikitu eta entramado legislatiboak kendu, eta Ogasunaren aurrean denok berdinak garela erakutsi behar dugu; heziketa lan handia egin behar dugu arlo honetan, jendeak uler dezan zergak ordaindu egin behar ditugula gizarte justoago bat eraiki ahal izateko. Hori ez da bi urtetan lortzen, baina mekanismoak jartzen ari gara.

Bestalde, apustu inportantea egiten ari gara partehartzearen kultura sustatzeko. Demokrazia ez da lau urtean behin bakarrik bozka ematea; herritarrak pertsona kritiko eta aktibo izan daitezen nahi dugu.



BIDESARIEN AUZIA

Oposizioko alderdiek 'Arkupe' sistemari ez esatea ezin da ulertu, gobernuaren aurkako desgaste estrategia bezala ez bada. Batipat oso kritikoa naiz EAJrekin, beraiek izan baitira arazo hau sortu dutenak

Bide-Azpiegituren departamentuko buru zaitugu, eta, hain zuzen, zeresan handia ematen ari da Gipuzkoako errepide sarean garraiolariari ezarri nahi diezuen 'Arkupe' izeneko bidesari sistema. Badirudi, oraingoan behintzat, mahai gainean utzi beharko duzuela, oposizioko alderdi guztiak aurka baitaude.

Garbi eduki behar dena da, aurreko agintariek 900 milioiko zorra utzi zutela

Bidegi-n. Orain kredituak ordaintzen hasi behar dugu, eta ez zaigu iristen Aldundiak gaur egun dituen diru baliabideekin.

Orduan, horren aurrean erantzukizunez jokatzearabaki dugu. Begiratu genezakeen beste aldera, baina ez; arazoari heldu beharra dagoela erabaki dugu, Bidegi-ren zorraz gain, errepideen mantenuan ere izugarritzko defizita dagoelako. Dirua egon den garaian, errepideak eraiki eta eraiki egin dira, eta orain horren herentzia eta ondorioa kudeatzea dagokigu guri. Eta zein da ondorioa? Bada, errepideen mantenimenduan ez dela inbertitu, eta hainbat errepide ditugula bide-segurtasunaren ikuspuntutik nahikoa arriskutsuak direnak.

Horren aurrean, Europako herrialde garatuenean diote bidesariak jarri behar direla. Eta ildo horretan, aurreko agintalditik zetorren Etxegaraten garraiolariantzako bidesaria jartzeko proposamena, baina guri ez zaigu egokia iruditzen, Nafarroarekiko muga fisiko bat jartzea bezalakoa baita.

Horren ordean, guri egokiagoa iruditzen

zaigu kapazitate altuko errepide sare guztian zehar kobratzea, 'Arkupe' izeneko fluxu libreko sistemaren bidez. Etxegarateko proiektuarekin 5 milioiko rekaudazioa egingo litzateke urtean, eta Arkupe sistemarekin berriz 26 milioi; horietatik 16 bideratuko lirakeke errepideen mantenua, eta beste 10 bestelako proiektuetara, gipuzkoarren ongizatea areagotzera.

Guk ahalegin handia egin dugu kontsentsuaren alde; gure hasierako planteamenduetatik ('Bineta' sistema) mugitu gara akordioaren mesedetan eta, hala ere, gainerako alderdiek ezezkoa eman diote Arkupe proiektuari, EH Bilduren aurka egiteko estrategia bezala. Bestela ezin da ulertu; denok ados baldin bagaude garraiolariari (oraingoan behintzat garraiolariari) kobratu egin behar zaiela, Arkupe sistema ez ateratzea ezin da ulertu. Joku politikorako gai bihurtu dute, eta ez dira erantzukizunez jokatzeko ari. Batipat oso kritikoa naiz EAJrekin, beraiek izan baitira arazo hau sortu dutenak.

Ez al da kontraesana kamioientzako bidesariak jarri nahi izatea eta, bestalde, autobidea erabiltzen duten ibilgailu arinei deskontuak aplikatzea (25€-ko muga hilean)?

Lurralde oreka bilatzeko hartutako erabakia izan da hori. Gure ustez ez da bidezkoa gipuzkoar batzuek ordaindu behar izatea azpiegitura batzuk (A-1, A-8) erabiltzeagatik, eta beste batzuek ez ordaindu behar izatea igoaleko txukunak diren errepideak (N-1, A-15...) erabiltzeagatik. Zergatik ordaindu behar dute debagoiendarrek edo zarauztarrek, eta ez andoaindarrek edo ordiziarrek?

Kontuan hartu behar da, gainera, autopistaren inguruan dauden herrietan (Debagoienean esaterako) garraio publikoa ere okerragoa dela, Donostia edo Goierrikoarekin alderatuz. Horregatik, 25€-ko neurriaren helburua da lurralde oreka bilatzea, eta inor ez dadila kaltetua sentitu, guztiz arbitrarioa den erabaki politikoa bategatik.

Garraio publikoa sustatzea da zure sailaren lehentasunetako bat. Ildo horretan, urrats inportantea eman duzue MUGI txartelaren barruan garraiobide ezberdinak integratuz.

Garraiobideen konpetentzia oso banatuta dago herri honetan: Euskotren Jaurilaritzarena da, Renfe estatuarena, Lurraldebus Aldundiarena, D-bus Donostiarena... Eta bakoitzak zituen bere tarifak eta bere bonifikazio sistema.

Orduan, hori guztia modu antolatuan koordinatu nahi izan dugu, eta horretarako sortu dugu MUGI txartela,

bere baitan integrazio tarifarioa duena. Zer da hori? Ba, edozein delarik erabiltzen duzun garraiobidea, kostua berdina dela, eta deskontuak ere bai. Horrek asko errazten dizkio gauzak erabiltzaileari, eta deskontuak handiagoak dira, kontadore bakarra dagoelako sistema guztientzat.

Horrek elkarlan handia eskatu digu instituziooi, prezioak adostu eta deskontuak aplikatzeko irizpideak bateratzeko. Lan handia egon da atzean, baina emaitza da oso ondo funtzionatzen ari den txartela. Gaur egun Oñatiko edozein pertsona joan daiteke Donostiara autobusez, han urbanoa erabili, Zarautzera trenez joan... eta dena txartela bakarrarekin. Gaur egun 400 mila gipuzkoarren dute Mugi txartela; bada zer bait, guztira 700 mila garelako kontuan hartuz.

Oraingoz Renfe geratu zaigu zintzilik; posible da Mugi-rekin ordaintzea tren bidaia, baina ez du kontabilizatzen deskontuetarako. Ari gara negoziatzen, eta uste dut agintaldia amaitu aurretik integratuko dugula Renfe ere.

Oñatitik begiratuta, gabezia asko ditu oraindik garraio publikoak.

Bai, noski; asko dago oraindik egiteko: geltokiak, konexioak, intermodalitatea, irisgarritasuna... Une honetan ari gara, bizikletak, ume-kotxeak eta gurgildun aulkiak eramateko araudia prestatzen.

Oñatiri dagokionez, konkretuki, Oñati eta San Prudentzio arteko lanzadera zerbitzua jarri dugu, eta oraindik desajuste batzuk dauden arren, gero eta jende gehiagok erabiltzen du.

Gogoratu nahi nuke, herrien arteko autobus zerbitzua hobetzeko prozesu partehartzailea martxan dugula. Herriz herri jasotako ekarpenekin aurre-proiektua lantzen ari gara, eta martxoan aurkeztuko dugu herriz herri. Beraz, animatu egin nahi ditut herritarrek bilera horietan parte hartzera, azken batean, herritarren behar eta premiei erantzungo dien zerbitzua antolatzea baita helburua.

Fiskalitate mailan ere iraultza txiki bat egin nahi izan du Bilduk. Zer azpimarratuko zenuke, oro har, egindakotik?

Eztabaida fiskala mahai gainean jarri dugula esango nuke; orain asko hitz egiten da fiskalitateaz, lehen ez bezala, eta hori oso inportantea da. Ildo horretan, ezkerreko irizpide batzuk herritarren mentalitatean sartzen ari direla uste dut: gehiago daukanak gehiago eman behar duela, iruzur fiskalaren aurka borrokatu behar dugula, guztiok berdinak izan behar dugula



FISKALITATEA

Fiskalitatearen gaia mahai gainean jarri dugu eta ezkerreko irizpide batzuk sartzen ari dira herritarren mentalitatean: gehiago daukanak gehiago ematea, iruzur fiskalaren aurkako borroka...

zergen aurrean...

Neurri konkretuei dagokienez, Ondarearen gaineke zerga berrezarri dugu, aberastasun handien gaineke sortu dugu, PFEZ eta Ondorengotzeen zergak egokitu ditugu, eta orain Sozietate zerga moldatu nahian ari gara, mozkin edo irabaziak zergapetuz, eta gaur egun dauden ihesbideak ezabatu nahian.

Inspekzio fiskalari ere garrantzia berezia eman diogu. Inspektore talde berria sortu dugu, eta datuen interkonexioaren gainean lanean ari gara beste administrazio batzuekin, baita Europa mailan ere, zerga-bilketa eraginkorragoa izan dadin, eta ihesbiderako aukerak murrizteko. Garbi daukagu, borondate politikoa baldin badago, iruzur fiskalaren aurkako borroka dela egin daitekeen inbertsio inportanteena.

Orain arte ez al da nahikoa borondate izan?

Nik uste dut oro har tolerantzia asko egon dela iruzur fiskalari, eta elusiorako

HONDAKINEN KUDEAKETA

Promesa egin genion gure hauteslegoari errauskailua geldituko genuela eta oso pozik gaude; Gipuzkoa birziklapenaren bidean jartzen ari gara eta harro egoteko moduan gaude”

Hondakinen gaiak ere eztabaida ugari eragin du Gipuzkoan. Azkenean errauskailua gelditzea lortu duzue, 8 milioiko kalte-ordaina ordainduta. Justifikatuta al dago?

Oso justifikatuta. Oso kurioa da gainera, zeren bi aste beranduago 17 milioi aurreztu ditugu errepedeen mantenu-kontratua Bidelan-ekin birnegoziatu ondoren, eta inork ez du ezer esan horri buruz. Harritzekoa!

Errauskailua gelditzeagatik 50 milioi ordaindu beharko genituela esaten zuten; gero 24, eta azkenean 8 izan dira.

Errauskailuak 400 milioitik gorako aurrekontua zeukan, eta lehen egunetik defizitarioa izango zen, gaur egun birziklatzen denarekin. Zaborra inportatzen hasi beharko genukeen. Beraz, guk uste dugu errauskailua kaltegarria zela, bai osasunerako, eta baita lurralde honen garapenerako ere.

Promesa egin genion gure hauteslegoari errauskailua geldituko genuela, eta pozik gaude. Oso berri ona da. Gipuzkoa birziklapenaren bidean jartzen ari gara, eta uste dut gipuzkoarrok pozik eta harro egoteko moduan gaudela. Ikusi besterik ez dago, zori ondu egiten gaituztela bai Europan eta baita Madrilgo senatuan ere. Zoriturrez, gaia politizatu egin da.

Hala ere, hondakinen gaiari emango diozuen irtenbidea ez dago oso garbi oraindik. 2014ko urte amaierarako Gipuzkoan dauden hiru zabortegeak ixteko hitza eman duzue, baina oraindik ez dituzue eraiki azpiegitura alternatiboak. Zer egingo duzue birziklatzen ez diren hondakinekin (%40 kasurik onenean)?

Berehala hasiko gara Epeleko konpostatze planta eraikitzen, eta hondakinen zikloa ixteko behar diren beste azpiegiturak ere (tratamendu planta biologiko-mekanikoa, biometanizazio planta, inerteendako zabortegeak...) datozen hilabeteetan eraikiko ditugu. Uste dut orain dela momentua, errauskailuaren mamurik gabe, alderdi ezberdinen artean hitz egin eta akordioetara iristeko.

bide asko jarri direla. Teorian denok gaude iruzurraren aurka, baina ikusi egin behar da nola egiten diren legeak. Uste dut guk bai markatu dugula diferentzia bat.

Madriletik datozen murrizketei eta, zehazki, Lan Erreformari aurre egiteko neurriak ere hartu dituzue.

Bai, alde batetik, Aldundiaren kontratazio publikoetan Gipuzkoako lan hitzarmena errespetatuko dela bermatzeko foru araua aurkeztu genuen.

Bestalde, zaharren egoitzetako 4.200 langilean (ia guztiak emakumeak) hitzarmenak blindatzea lortu dugu; bestela, estatuko hitzarmenarekin geratuko ziren, 400 edo 500 euro gutxiago irabaziz, 1.100€ inguruko soldatak dituzten langileak. Erresistentzia handia aurkitzen ari gara, eta demanda batzuk ere jarri dizkigute, baina gure esku dauden bitarteko guztiekin ari gara borrokan.

Arlo sozialean ere 10 milioi euro jarri dituzue Madrigo gobernuak Mendekotasun legeari ezarritako prestazioen murrizketak konpentsatzeko.

Bai, eta aurreko Jaurilaritzak RGI ezarritako murrizketak konpentsatzeko ere laguntza konplementario bat jartzea erabaki dugu.

Izan ere, guk garbi daukagu pertsonak direla gure kudeaketaren ardatza, eta pertsonengan inbertitu nahi dugula. Sistema publikoak funtzionatzen ez badu, karitatara jo behar dugu, eta guk ez dugu hori nahi; guk gizarte kohesionatu bat nahi dugu, non administrazioak herritarrak babestuko dituen.

Gizarte zerbitzuak finantziatzeko eredu berri bat proposatu duzue. Horren arabera, zaharren egoitzak Foru Aldundiaren esku geratuko lirateke, eta eguneko zentroak udalenean. Oñatin badago kezkarik horren inguruan. Zer gertatuko da San Martin egoitzarekin? Oraindik ez dago ezer erabakita horren inguruan. Garbi daukagu zerbitzu sozialen kartera egin behar dugula, instituzio bakoitzak eskaini beharreko zerbitzuak zehazteko, eta inork ez dezan besteen konpetentziak bere gain hartu beharrik izan.

Baina herri bakoitzeko egoera ezberdina da, eta oraindik aztertzen ari gara gai hori. Ez dago ezer erabakita.

Ekonomia arloan, krisiari aurre egiteko planik ez edukitzea leporatzen dizuete oposizioko alderdiek.

Gipuzkoako bailara bakoitzak bere idiosinkrasia propioa du; beraz, krisiari

NORMALIZAZIO PROZESUA

Garbi dago, jende askok aitzaki bezala erabili duela borroka armatuaren gaia. Sakoneko gatazka politiko bat dago hemen, eta ez zaio irtenbide negoziatua eman nahi

Gatazka politikoari dagokionez, nola ikusten duzu egoera?

Hemerotekara jotzen badugu, beti esaten zen ETAk jardun armatua uzten zuen egunean dena izango zela posible, eta garbi dago, jende askok aitzaki moduan erabili duela borroka armatuaren gaia. Sakonean gatazka politiko bat dago hemen, eta ez zaio irtenbide negoziatu bat eman nahi, jende asko oso eroso dagoelako egungo sistema politikoarekin.

Baina sistema hori antidemokratikoa da, gure proiektu politikoa gauzatzea galerazita dagoelako. Zer izan nahi dugun erabakitzeak eskubidea aldarrikatzen dugu. Horixe da gatazkaren muina eta herri honetan hainbesteko sufrimendua eragin duena.

Bai ETAk eta bai Ezker Abertzaleak urrats ugari eman dituzte, baina espainiar estatua erabat blokeatuta dago, agente politiko bilakatu diren biktime elkarrean presiopean, konponbideari muzin eginez, eta euskal presoan aurkako anikilazio politikari eutsiz. Beraz, beltz ikusten ditut gauzak, oraingoz.

Uste dut euskal herritarren aldetik indarrak aktibatu behar ditugula; nire ustez hemen badago indar nahikoa Madrili exijitzeko desaktiba ditzala gutxienez salbuespeneko politikak. Eta hainbat alderdiri eskatuko nieke epeltasun horretatik irten eta jarrera kontudenteagoa erakustea Madrilen aurrean.

Lehengo egoerara bueltatzeko arriskurik ikusten al duzu?

Ez. Etsipena sortu nahi dute sektore independentistetan, baina uste dut ez dutela lortuko. Erabaki bat hartu zen, eta erabaki horrekin aurrera egingo dugu, eta borroka demokratikoaren bitartez iritsiko gara gure helburu politikoak lortzera.

aurre egin eta enplegua sortzeko aukerak ere, tokian tokiko eragileen artean landu behar direla uste dugu. Administrazioari dagokio akuilu lana egitea eragileen artean, eta horretan ari gara.

Guk uste dugu administrazioak oso sektore konkretuetan inbertitu izan duela, bere bidea egina duten sektoreetan, eta, beste sektore batzuetara begiratzeko unea da; adibidez, enplegu zuriaren arloan (babes sozialarekin lotuta) 1.000 lanpostu sortzeko bidea ikusten dugu, eta enplegu berdearenean (energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa...) ere badago merkatu bat. Lehen sektoreari ere eman behar diogu aterabideren bat, ikerketa eta garapena ahaztu barik, noski.

Fagor eta beste enpresa batzuekin gertatzen ari dena ikusita, pentsatzeko garaia dela uste dut; energiak noruntz bideratu behar ditugun pentsatu behar dugu denon artean.

Euskarari dagokionez, prentsaurreko guztiak euskara hutsez ematea erabaki duzue. Erabaki ausarta, ezta?

Gure filosofiarekin bat doan erabakia da.

Gipuzkoa lurralde euskalduna da, eta aldundiaren irudia euskara izan behar da, naturaltasun osoz, Katalunian egiten duten moduan.

Azpimarratzekoa da, baita ere, Gardentasuna eta Informazio Publikoari buruzko foru araua. Zertan da? Zer jasoko du?

Azken helburua da administrazioa gardena izatea herritarren aurrean. Korrupzioa edo ustelkeriaren mamua hain zabaldua dagoen garai honetan, uste dut inportantea dela gestioaren gardentasuna eta diru publikoen kontrolerako mekanismoak jartzea. Gure asmoa da, 2014an zehar webgune bat martxan jartzea, eta webgune horretan herritarrek kontsultatu ahal izango dute Aldundiaren jardunaren inguruko informazio guztia: aurrekontuak, kontratazio publikoak, gure ondasunak... Batzorde arbitral bat ere eratuko dugu, herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea bermatzeko.■

enpresa ekimenak

'poldesignthinking' diseinu zerbitzuak

Udal Enplegu sailaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenen berria ematen dugu orriotan tarteka. Oraingoan, Joseba Pol gazteak sortu duen diseinu arloko zerbitzu enpresa aurkezten dizuegu: poldesignthinking. Euskarri ezberdinetarako diseinuak (katalogoak, kartelak, webguneak, kamisetak...) eta inprimatzerakoan gastuak murrizten laguntzeko aholkularitza teknikoarekin eskaintzen du Josebak.



Era guztietako diseinu lanak egiten ditu Josebak

Nolatan animatu zara autoenpleguaren bidea hartzera?


laz, ikasketak amaitzeaz geundela, lau ikaskideren artean enpresa bat sortzeko aukera aztertu genuen. Egitasmoa polita zen, baina ez zen aurrera atera, arrazoi ezberdinengatik, tamalez.

Gero, jakin nuen Udalak laguntzak ematen dituela enpresa ekimenak sortzen laguntzeko, eta, hala, bideragarritasun azterlana egin eta apustua egitea erabaki nuen nire kabuz.

Zein zerbitzu eskaintzen duzu, eta nori zuzenduak?

Alde batetik, diseinuarekin lotutako lanak egiten ditut, era guztietakoak eta euskarri ezberdinetan, hala nola, katalogoak, liburuskak, kartelak, aldizkariak, webguneak, kamisetak...

Bestalde, aholkularitza teknikoarekin ere



JOSEBA POL MARCOS

Art Director and Designer

Zubillaga auzoa, 20-1. (ZM5)

617965263

poldesignthinking@gmail.com

eskaintzen dut, batez ere enpresei zuzenduta; katalogoak edo antzekoak inprimatu behar dituztenean, kostuak murrizten laguntzeko aholkularitza

teknikoa eskaintzen diet.

Hasi al zara lanak egiten? Zer moduz dago lan merkatua?

Ezin naiz kexatu. Natrarentzako lan batzuk egiten ari naiz; webgune bat ere prestatzen ari naiz optika batentzako, eta beste enpresa batentzako logoa edo irudia ere enkargatu didate. Handik eta hemendik ari dira lanak irteten, eta pozik nago.

Laguntzarik izan al duzu enpresa abian jartzeko?

Bai, Oñatiko udalarena. Enpresaren bideragarritasun azterlana egiteko laguntza teknikoarekin izan dut, eta gainera 1300€-ko laguntza jaso dut enpresa abian jarri eta lanpostu bat sortzeagatik. Horrez gain, Zubillagako Olaburu zentroan lokal bat alokatu dit Udalak.



kuber

Rehabilitaciones y Obras Kuber, S.L.

LEHEN



ORAIN



Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK

%30 arteko
diru-
laguntzak



Irtenbide onenak
isolamendu termikoko
sistemetan (SATE).

kuber@kuber.es Tfno: 943 73 35 73 www.kuber.es



*Guztiona guztion artean
kalitatezko, euskaldun ta publikoa,
lau zutaberen gainean eraikia
herriaren neurrikoa*

*Txiki-Txokotik, Larrañara,
ur gainean egindako bidaia,
Errekalde ta Zuazola
bizitzaren ikasgaia.*



Txiki-Txoko gunea



Errekalde gunea



R.M. Zuazola gunea



**Larraña gunea
HHI-EPA gunea**



- ! Matrikula:**
Otsailak 3tik, Otsailak 14ra
- ! Ate irekiak:**
Errekalden, Otsailak 1, 17:00etatik aurrera
- ! Matrikula Txiki-Txokon:**
Urtarrilean, maiatzean eta irailean
- ! Informazio bilera Zuazolan:**
Otsailak 6, 18:00etatik aurrera

www.goieskola.net

www.urgain.eu

LABELDUN TXERRIAK



ASKAZUBIN HAZIAK

TXERRIZALEOK elkarteko baserritarrek ekoizten duten baserriko txerriak EUSKO LABEL ziurtagiria jaso berri du. Gaur egun basatxerria hazten duten 32 ustiakuntza daude Euskadiko geografia osoan zehar. Hauetako bat, Debagoiena eskualdeko bakarra, Zubillagan dago, Askazubi baserrian. Bertako arduradun Jon Lizaurrekin izan gara.

Txerriarentzat hain sinbolikoa den San Martin egunean aurkeztu zuten Bilbon Eusko Labeldun Baserriko Txerria, 'URDETxE' markarekin merkaturatzen dena. Label kalitate ziurtagiriaren bidez, jaten dugun txerri okelaren jatorria eta benekotasuna bermatu nahi da, kontsumitzaileari kalitate maila jakin bat ziurtatuz, eta baserritarren lana babestuz.

Eusko Label ziurtagiria eskuratu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako HAZI fundazioak ezarritako baldintza eta prozesu zorrotz batzuk bete behar ditu baserriko txerriak.

HAZKUNTZA MODUA

Txerriak hazi eta gobernatzeko modu berbera erabiltzen da TXERRIZALEOK elkarteko ustiakuntza guztietan. Txerrikumeak 20 kilo inguru dituztenean mendira askatzen dira, beren babeslekuekin, noski, baina irekiak, animalien ongizatea errespetatuz eta zainduz, eta bertan egoten dira bost bat hilabetez, 150 kilo inguru hartu arte. Elikatzeko, pentsu naturalak eta mendian aurkitzen dituztenak (ezkurak, gaztainak, belar eta sastrakak...) jaten dituzte.

Behin gizendutakoan, txerriak hiltegiara eramaten dira, eta hilketa egunetik bi



Zertifikatutako pentsu naturalak eta mendian aurkitzen dutena bakarrik jaten dute baserriko labeldun txerriak

egunera banatzen dira harategi eta urdaitegietara, produktuaren freskotasuna bermatuz.

APARTEKO ZAPOREA

Txerriak hazteko jarraitzen den prozesu horri esker, kalitate eta berme sanitario handiko haragia lortzen da, kolore biziagoa duena, eta zaporetsua; baserriko txerriak aske hazten direnez, ariketa gehiago egiten dute, eta horri esker koipea haragina barneratzen da, okela goxoagoa eginez.

Labeldun txerri okela Eusko Labelek baimendutako harategietan bakarrik

URDETxE
Baserritarrok Aske Hazitako Txerria
Cerdo Criado en Libertad por Baserritarras



Txerriki freskoez gain, baserriko txerriaz egindako beste produktu landu batzuk ere aurkituko ditugu merkatuan

aurkituko dugu. Oñatin, zehazki, Antxon, Garay eta Super BM harategietan saltzen da.

Txerriki freskoez gain, baserriko txerriaz egindako beste produktu landu batzuk (HAZI erakundeak baimendutako enpresa adituek egindakoak) ere aurkituko ditugu: urdaiazpiko egosi extra, gibel-patea, urdaiazpiko ondua, txorizoa, saltxitxoa, txistorra, solomoa, hirugihar adobatua edo ondua... Hamasei produktu guztira, eta denak Eusko Labeleko etiketarekin saltzen dira.



JON LIZAUR / TXERRI EKOIZLEA ASKAZUBIN

“20 kiloko txerrikumak ekartzen dizkigute eta bost hilabetez edukitzen ditugu baserrian gizentzen”

Noiz eta nolatan hasi zinen txerriak hazten?

Baserrian ditugun lursailei erabileraren bat ematearren. lazko abenduan hasi nintzen nire lanarekin osagarria izan zitekeen ganadu aktibitatearen bat abian jartzeko aukerak aztertzen. Inbertsio eta dedikazio handirik eskatzen ez duen zerbait izan behar zuen, eta hortan nenbilela, TXERRIZALEOK elkartearen berri izan nuen.

Elkarteko arduradunekin berba egin ondoren, aurrera egitea erabaki nuen, eta beharrezko azpiegitura prestatu ondoren (txerrientzako aterpea, plataforma, askak...) maiatzean jaso genuen aurreneko sorta (70 txerrikume). eta azarora arte eduki genituen gizentzen. Abenduan jaso dut sorta berria (80 txerrikume).

Beraz, bost bat hilabetez edukitzen dituzu txerriak etxean gizentzen?

Bai; 20-25 kiloko txerrikumeak ekartzen dizkigute eta 150 bat kilo hartzen dituztenean eramaten dituzte. Sorta bat kendu eta hurrengo ekarri bitartean, hilabetezko tartea utzi behar izaten dugu, instalazioak garbitu eta desinfektatzeko.

Hortik aurrera, Txerrizaleok elkartea bera arduratzen da txerria hil, zatikatu eta komertzializatzeko. Horrek, jakina, asko errazten du gure lana.



“Baserriko txerriak zelaian libre hazten direnez, ariketa gehiago egiten dute, eta horri esker koipea haragian integratzen da eta horrek zapoetsuagoa eta samurragoa egiten du okela”

Dedikazio handia eskatzen al du?

Ez. Gehien bat lehenengo 3-4 asteetan; txerrikumeak txikiak dira artean, epelean egoten ohituta daude, eta, beraz, aterpean zaintzen ditugu, pittin bat gizendu eta poliki poliki zelaira atera arte. Gainean egon behar da, gaitzik harrapatzen ez dutela ziurtatzeko.

Ondorengo lau hilabeteak errazagoak izaten dira; nahikoa da egunean bueltatxo bat eman eta jan-edanik ez zaiela falta ziurtatzea. Aitarekin txandaka ibiltzen naiz eta, egia esan, ez du lan askorik ematen.

Zein betebeharrak ezartzen dizue Eusko Label ziurtagiriak?

Guri dagokigunean, lursailak eta txerrientzako instalazioak (aterpea, askak...) neurri jakin batzuk eduki behar dituzte, txerriaren ongizatea bermatzeko, bai kanpoan dagoenean eta baita barruan ere.

Eta elikadurari dagokionez, pentsu naturalak bakarrik ematen dizkiegu, elkarteak homologatutakoak. Kontrol handia dago.

Kontsumitzeko orduan igartzen al da?

Ni hasiberria naiz, oraindik, baina harakinek beraiek esaten dute alde handia dagoela, txerri-okela industrialarekin alderatuz; basatxerriaren okela zapoetsuagoa eta mamitsuagoa da. Txerri hauek zelaien libre hazten direnez, ariketa gehiago egiten dute, eta horri esker koipea haragian integratzen da, eta ondorioz, askoz ere samurragoa eta zapoetsuagoa da haragia.

Bizibide izan al daiteke txerri hazkuntza?

Ez, txerri asko hazi ezean behintzat ez. Txerrizaleok elkarteko baserritar gehien-tuenok aktibitate osagarri bezala daukagu. Inbertsio eta dedikazio handirik eskatzen ez duen jardura da, eta gustatuz gero, merezi du proba egitea. Txerrizaleok elkartean produktore berriak hartzeko gogoz daude. ■

VI. ESKAPARATE LHEIAKETA



JUANITOSAK epaimahaiaren saria eta KIMUK herritarrena

Juanitosa izan da Oñatiko VI. Eskaparate Lehiaketako izar nagusia, lehen saria (1500€) irabazteaz gain, urte osoan zehar erakuslehioa apaintzen egindako lanagatik ematen den sari berezia ere (xxx€) Kale Barriako bazarrak jaso baitu.

Lehiaketako bigarren saria (1000€) **Barue** dekorazio dendak jaso du, hirugarrena (500€) **Urrutia Gizonak** jantzi dendak, laugarrena (300€) **Letamendi** erropa dendak, eta bosgarrena (200€) Olakuako **Sustrai** fruta dendak.

Bestalde, herritarren botoz erabakitzen den sari berezia (500€) Kimu lora dendarentzat izan da, herritarrek emandako 426 botoetatik 145 eskuratuta. Marku eta Juanitosa izan ziren hurrengo bozkatuena. Botoa eman duten herritarren artean zozkatutako saria Irati Barrenarentzat izan da.

MONETA SOZIALA, BERTAKO KOMERTZIOA INDARTZEKO

Herriko merkataritza biziberritzeko plana egin ostean, datozen

bi urteetan abian jarriko dituzten ekimenen aurrerapena egin zuen Iosu Lizarralde udaleko Sozioekonomia batzordeburuak. Ildo horretan, aurtun bertan Moneta Sozialaren proiektua abian jartzeko asmoa azaldu zuen; Hasiera batean udal langileekin jarriko da martxan ekimena; hala, udal langileek erosketa bonotan jasoko dute soldataren zati bat, herriko denda eta zerbitzuetan gastatzeko. Neurri honekin, 60 mila euroren kontsumoa herriko denda eta zerbitzuetan bermatzea lortuko da.

Hurrengo fase batean, herriko enpresa ezberdinak ere Moneta Sozialaren ekimenera biltzen saiatuko da Udala, eta 2015era begira, Udalak kontzeptu ezberdinetan herritarrei aplikatzen dizkien hobariak ere moneta honetan emateko asmoa du Udalak. Gainerakoan, herria erakargarriago egin eta herritarrak bertako komertzioarekin konprometitzera zuzendutako ekimenak izango dira Udalaren helburu eta ardatz nagusiak.



600€ko saria eman du TXANDAK

Bi sari goxo bezain potolo (600 €-ko bi erosketa-bono) emango ditu Txandak Gabonetan, erosketak Oñatin egiten dituzten herritarren konfiantza eskertu eta saritzeko. Lehenengo saria, **Itziar Biain Ugarteri** egokitu zaio. Distira estetika zentroan jaso zuen saria Itziarrek, bertan bete baitzuen txartel saritua. Itziarrek abenduaren 24an jaso zuen saria, eta goiz horretan bertan gastatu behar izan zituen 600 euroak, promozio honetako baldintzen arabera. Hurrengo saria, 600 eurokoa hau ere, urtarilaren 3an zozkatuko da, eta kasu honetan ere, irabazleak urtarilaren 4ko goizean gastatu beharko du dirua.



Publipan-en deskontu poltsarekin sarituak

Eguneroko ogia erosterakoan jasotzen dugun poltsan agertzen ziren deskontu-promozioak erabiltzen zituzten herritarren artean 200 euroko sari bana zozkatu zuten urrian eta azaroan. Argazkian agertzen diren Maite Gomez eta Amaia Irizar izan dira sarituak. **Bimak** enpresako Beatriz Martinez de Albenizen eskutik jaso zuten saria.

URTARRILAREN 11N DENOK BILBORA

Presoen eskubideen alde egingo den mobilizazio nazionalera joateko deia egin du Tantz Tanta ekimenak

Urtarrilaren 11n mobilizazio nazionala egingo da Bilbon, Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira lelopean, eta bertara joateko deia egin du Tantz Tanta ekimenak. "Hauek dira aldarrikapenak: sakabanaketarekin amaitzea eta gaixo dauden presoak eta zigorra osorik beteta dutenak aske gelditzea. Aldarrikapen horien alde tanta guztiak banaka-banaka batzea da lortu nahi dena, itsasoa sortu arte. Gure itsasoaren oinarrian giza eskubideen errespetua dago; bakea eta konponbidea lortzeko, ezinbesteko tanta. Horrenbestez, oñatiar guztiak gonbidatu nahi ditugu, etorkizunarekin konprometitu egongo den itsaso zintzo honetan parte izatera. Autobusak egongo dira Bilbora joateko. Izena eman daiteke honako tabernetan: Pako, Oñati eta Arrano. Langabetu eta erretiratuak 8€ eta langileak 12€".



**SOR DEZAGUN ITSASOA!
IZAN ZAITEZ TANTA!**

Zergatik Bilbora urtarrilaren 11n?



MIREN GABIRIA: "Euskal presoek jasaten duten egoera hau gehiago luzatzeko arrazoirik ez dagoelako eta horrela pentsatzen dugun guztiok aldarrikapen hau Bilboko kaleetan ozen adierazi behar dugulako".



JUANJE ANDUAGA: "Presoek ere eskubideak dituztelako nire tanta jarri nahi dut euskal presoek aplikatzen zaaien mendeku-politika eta salbuespeneko neurriekin bukatzea aldarrikatzeko. Bakea eta elkarbizitzaren bidean, beharrezkoa da alderdikeriak alde batera utzi

eta mota eta kolore guztietako herritarrok mobilizatzea, gure indarrarekin mugitu nahi ez duten alderdi zein Gobernuak mugiarazteko. Bilboko kaleak bete eta itsaso erraldoi bat sortu behar dugu !!! Jakin dezatela zein den gure mezua".



MANTTONI PLAZAOLA: "Espetxeetako egoera gero eta okerragoa da, isolamentuak eta dispertsioak bertan jarraitzen dutelako eta gaixo dauden presoentzako askatasuna heltzen ez delako. Hau guztia oztupo bat bihurtu da hainbeste itxaroten dugun bakea lortzeko.

Horregatik, eskubide hauek aldarrikatu ahal izateko Bilbon egotea komenigarria da, ahalik eta lehen euskal preso eta iheslari guztiak etxera bueltatzeko".



ELIAS ZUMALDE: "Nahiago nuke joan beharrik ez izatea, baina orain arte egindakoa alferrikakoa izan ez dadin eta ezer egin nahi ez duten horiek mugiarazteko ezinbestekoa da gure aldarria Bilboko kaleetara eramatea. Nire tanta jarri nahi dut, beste askorenarekin batera, bakearen eta elkarbizitzaren aldeko uholdea sortzeko".



ANGEL BILLAR: "Euskal preso politikoen eskubideak errespetatu daitezten, eta salbuespen egoera honi nahikoa dela esateko, urtarrilaren 11an Bilbora joango naiz".



Txantxiku ikastola izan da Markel Lopez, eskerrak ematen

'Tximeleta azala' bezala ezaguna den *Epidermolisis Bullosa* gaitza duen Markel Lopez gazte urretxuarraren bisita jaso zuten Txantxiku ikastolan abenduaren 18an. Markelek, *Antxo*a izeneko bere txakur laguntzailea alboan zuela, gaixotasunak eragiten dizkion arazoez, eta bere eguneroko bizimoduari buruz hitz egin zuen LH-6 eta DBH-2ko ikasleekin. Eta eskerrak eman zizkion ikastolari eta oñatiar guztiei, oro har, berari laguntzeko tapoiak biltzen egiten duten ahaleginagatik.



'Ikusmen murriztua dut' bereizgarria sortu dute

Erabatitsuak ez izan arren, ikusmen arazoak dituen jende asko dago gure gizartean. Beharbada ez dute bastoi zuririk eramaten, baina zailtasunak izaten dituzte eguneroko bizitzan. Horregatik, pertsona hauek identifikatu eta lagundu ahal izateko sortu dute ikur hau.

1825€ batu dituzte Elkar Hezin Maliko haurrei laguntzeko



Elkar Hezi ikastetxeak abenduaren 14an antolatu zuen elkartasun azokan 1825 € batu zituzten, ikasle, guraso eta irakasleek prestatutako produktuen (gozogintza, bitxigintza, txosna...) salmentari esker. Batutako dirua Maliko (Afrika) Sain Paul ikastetxeko haurrei laguntzera bideratuko dute parrokoaren bitartez.

Oñatiko Kirol Sariak - 2013

Andoni Bernal eta Itxaso Egaña (eskubaloia), Josune Odriozola (igeriketa), Mikel Palacin (Kenpoa), Aitor Orueta (entrenatzailea), eta Aloña Mendiko Karate eta Pilota sailek jaso dute Udalaren errekonozimendua

Abenduaren 20an banatu ziren Udalak ematen dituen Oñati Kirol Sariak. Urtean zehar nabarmendu diren kirolariak saritu eta kirolaren alde hainbat herritarrek egiten duten lana aitortu eta eskertu nahi izaten ditu Udalak sari hauen bidez. Aurten zazpi sari eman dira, baina saririk jaso gabe geratu diren gainerako kirolari guztiak, eta kirolaren alde lan egiten duten hainbat herritarren lana eta konpromisoa ere gogoan izan zituen Ainhoa Martin udaleko kirol batzordeburuak.

Andoni Bernal eskubaloia jokalaria izendatu dute aurten banakako kirolari onena. Arrasateko eskubakoi taldean denboraldi bikaina egin du Andonik, eta bera da 1. maila nazionalera igotzea lortu duen taldeko erreferente nagusia.

Talde onenaren saria Aloña Mendiko **Karate sailarentzat** izan da. Karatea sustatzeko lan bikaina egiten ari dira, eta aurten, gainera, hogei bat domina lortu dituzte txapelketa ezberdinetan.

Entrenatzaile lanaren saria **Aitor Oruetak** jaso du aurten. Hainbat urtez Aloña Mendiko kategoria ezberdinetan jardun odoren, Alaves taldera jauzia egin du aurten, eta bertako Jubenil mailako taldea entrenatzen ari da.

Kirolaren alde egindako lanaren saria Aloña Mendiko **Pilota sailarentzat** izan da. Jon Romarate zabala eta Julian Doradok jaso zuten ondo merezitako txalo zaparrada. Direktibako lanak utziko dituzte, baina pilota ez dutela sekula utziko esan zuten, eta dei egin zieten herritarrei pilotalekura joateko, geurea den kirol honi eusteko.

Aurten, lehen aldiz, herritarren botoz erabakitako saria ere eman da. Danera 300 boto jaso dira eta **Josune Odriozola** igerilaria izan da bozkatuena. Gorka Guridi (motoziklismoa), Aitor Otamendi (Raid abentura) eta Iban Letamendi (mendi lasterketak) ziren beste hautagaiak.

Azkenik, **Mikel Palacinek** aipamen berezia jaso du, defentsa pertsonala lantzen duen Kenpo arte martziala Oñatira hurbiltzeaz gain, Espainiako txapelketan urrezko eta brontzezko domina bana eskuratu dituelako.



Andoni Bernal, kirolari onenaren saria



Aitor Orueta, entrenatzaile lanaren saria



Pilota saila, kirolaren alde egindako lanaren saria



Aloña Mendiko Karate saila, talde onenaren saria



Josune Odriozola, herritarren saria



Mikel Palacin, aipamen berezia



Itxaso Egaña, aipamen berezia



Itxaso Egañak eskubaloia utzi du, hamahiru urtez elitean aritu ostean

Saria pertsonalki jasotzerik izan ez bazuen ere, ondo merezitako errekonozimendua jaso zuen Itxaso Egañak Oñatiko Kirol Sarien ekitaldian, izan ere, amaitutzat eman baitu estatuko mailako eskubaloia elitean emandako hamahiru urteko ibilbide oparoa.

Aloña Mendiko harrobian hazi zen Itxaso, Iñaki Canteroren aginduetara, eta 18 urterekin Donostiako *Bera Bera* taldeak fitxatu zuen. Donostiarrekin debutatu zuen Ohorezko mailan, eta Europako EHF Kopan jokatzeko aukera ere izan zuen.

Gero, Granadako *Iznalloz* eta Santanderreko *Marina Park* taldeetan aritu zen, biak ere Ohorezko mailako taldeak, eta azken urteak Katalunian eman ditu, Tarragonako *Amposta* eta Bartzelonako *Molins*-en, Zilarrezko ligako taldeak biak ere.

Oñatiko eskubaloiak eman duen jokalaria garrantzitsuenak da Itxaso, duda barik. Ibilbide bikaina egin du eta, orain, beste gauza batzuez disfrutatzeko unea dela erabaki du.



Ziklo kros festa San Martinen

Gozatu ederra hartu zuten abenduaren 22an San Martin inguruetan bildu ziren txirrinduzaleek. Gipuzkoako Ziklo Kros txapelketak jokatu ziren bertan, Aloña Mendik antolatuta. Aketza Peña txirrindulari profesional ohiak irabazi zuen elite mailako lasterketa, baina Asier Arregi eta Olatz Odiozola-arentzat izan ziren txapelak. Etxekoen artean, Kadete mailan Ekaitz Txintxurreta (7.), Xabier Murgiondo (8.) eta Ander Gartzia (9.) sailkatu ziren, oso lan txukuna eginez. Junior mailan, podiumetik gertu ibili zen Julen Umerez, baina 5. tokiarekin konformatu behar izan zuen; Xabier Aiausti 9. eta Iker Alberdi 11. sailkatu ziren. Master-40 mailan Iñaki Barrena 7.a izan zen, eta Master-50 mailan Andoni Gartzia 9.a.

» ATLETISMOA

Sara Gomez irabazle Arrateko krosean

Sara Gomez Aloña Mendiko korrikalari gazteak abenduaren 8an Arraten jokatu zen XLIV. Bolunburu krosa irabazi zuen Junior mailan. Iazko urte zaila izan zen Sararentzat, lesio baten ondorioz, baina badirudi indarberrituta itzuli dela. Bestalde, aipatzekoa da senior mailako taldekako sailkapenean Antxintxiketan kirol elkarteak lortutako hirugarren postua; Iñaki Pelayo (10.) izan zen azkarrena. Azpimarratzekoa, baita ere, Alebin mailan Gexan Anduagak (7.) eta Igor Mugarzak (9.) egindako lana.



Artxiboko irudia

» MENDI IRTEERA

Araotz-Kurtzebarri-Aretxabaleta

Aloña Mendiko Mendi sailak urte berrirako antolatu duen lehen irteera gure inguruan izango da. Araotzen abiatu eta Degurixan barrena Kurtzebarri mendia igo eta Aretxabaletan amaituko da ibilaldia; 13 kilometro eta 800 metroko desnibela, zailtasunik gabe.

Bukaeran, urtea behar den bezala hasteko, bazkaria egingo dute Apotzagako elkarteak.

Urtarrilaren 19an izango da irteera, goizeko 8etan, Korreos parean. Bazkideek 10€, ez-bazkideek 13€ eta langabetuek 5€.

» ESKUBALOIA

ANAITASUNA eta BIDASOA Asobal mailako taldeak aurrez aurre Oñatin

Aloña Mendiko Eskubaloia sailak antolatuta, Asobal mailako eskubaloia partidua ikusteko aukera izango dugu Zubikoa kiroldegian. Hasiera batean urtarrilaren 18an jokatzekoa zen partidua, baina Anaitasuna taldeak agenda arazoak ditu egun horretarako, eta aldizkaria ixteko orduan finkatu gabe zegoen oraindik noiz jokatu duen, baina, edozein modutan, urtarrilean izango da.

» KIROLDEGIA

Kirol taldeentzako deialdia

Udaleko Kirol batzordean 2014an herriko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak emateko baldintza plegua lantzen ari dira. Horren berri eman eta kirol eragileak proposamenak jasotzeko, 2014an zehar kirol ekintzak antolatuko dituzten herriko eragileei bilera baterako deia egiten zaie. Urtarrilaren 8an izango da, Zubikoa kiroldegian, 19:00etan.

Baserriko *kiwi* ekologikoak goxo-goxoak

3 tamaina (10kg. kaxak)

Haundiak 18€
Ertainak 13€
Txikiak 10€

IRABAN baserria • Tel.: 943 78 18 32

IÑAKI OLALDE / Bertso Eskolako kidea

“Oñati oso plaza inportantea da, eta bertsolariek beti etorri nahi izaten dute”

► BECeko zortzi finalistek kantatuko dute Oñatin Errege bezperan.

► Sortu den ikusmina ikusita, kiroldegiko kantxan izango da aurten bertso saioa, pilotalekuan baino 300 bat lagun gehiago sartzeko aukera ematen baitu

Abenduaren 15ean jokatu zen BECeko finaleko emozioak oraindik ere bizi-bizi dauden honetan, zortzi protagonistak elkarrekin kantuan ikusteko aukera izango dugu Oñatiko Bertso Eskolaren eskutik. Iñaki Olalderekin hitz egin dugu hainbesteko ikusmina piztu duen saioari buruz.

BECeko zortzi finalistak ekarri nahi zenituzten Oñatira, eta lortu duzue. Erraza izan al da? Aurten oso garbi geneukan ahalegin hori egingo genuela, eta finalerdietara iritsi ziren bertsolariei jakinarazi genien gure asmoa. Errege bezpera egunean bertan beste saio bat ere badago Oiartzunen, arratsaldeko 5etan, eta han ere kantatuko dute zortzi finalistek, eta gero Oñatira etorriko dira.

Egia esan, Oñati plaza oso inportantea da; herri oso bertsozalea da, eta bertsolariak beti etorri nahi izaten du Oñatira.

Ikusmin handia piztu du saioak, eta, horregatik, pilotalekuan egin ordez, kantxa nagusian egitea erabaki duzue.

Bai, pilotalekuko sarrerak (660) bi egun eta erditan agortu ziren, eta artean eskari handia zegoela ikusita, kantxan egitea erabaki dugu; hartara 300 bat lagun gehiago sartzeko aukera egongo da. Egia da kantxa hotzagoa dela pilotalekua baino, baina ez zitzaigun egokia iruditzen jendea kanpoan uztea.

Hala ere, gerta liteke jendea sarrerarik gabe geratzea, baina, azken batean, Eusko Jaurlaritzako Joku eta Ikuskitzaketako sailak agintzen du zenbat jende sartu ahal den, eta, nahita ere, ezin dugu gehiago egin. Saiatuko gara kiroldegiko kantxa ahalik eta beroen eta goxoen jartzen.

Eskertu nahi nuke Txokolateixako Antonek eman digun laguntza sarrerak saltzen. Gainera, Antonen beraren



ekimenez, Oñatiko produktuz (txakolina, gazta, txokolatea, aterkiak...) osatutako otar bat (200€ inguruko balioa duena) zozketatuko dugu bertso saioko sarreraren artean.

Punta-puntako kartela osatu duzue; orain antolatzaileok asmatu behar duzue gai eta ariketa egokiak jartzen.

Bai, gainera kontuan hartu behar da 8 bertsolari izango direla, ohi baino gehiago, eta, beraz, bi orduetik gora joango dela saioa, normalean ordu eta erdikoa izaten dena. Guk aste batzuk daramatzagu saioa prestatzen, eta espero dugu asmatzea gaietan eta ariketa motetan. Espero dugu bertsolariak etortzea finaleko presiorik gabe, eta beraien onena ematea. Gure asmoa ez da finaleko errebantxa moduko bat antolatzea, ezta gutxiago ere; txapelketarekin ahaztu eta gozatzeko saio bat izatea nahi dugu. Oholtzan egongo diren bertsolariak

Kiroldegiko kantxa pilotalekua baino hotzagoa da bertso saioa egiteko, baina ez zitzaigun bidezkoa iruditzen hainbeste jende kanpoan uztea

Punta-puntako kartela daukagu; ea asmatzen dugun gaiekin eta ariketa motekin, saio borobil bat osatzeko. Txapelketako tentsioa ahaztu eta gozatzeko saioa izatea nahi genuke, bertsolariak txalotu eta zoriontzeko

txalotu eta zoriondu nahi ditugu eta eskerrak eman egiten duten lanagatik.

Zuk zeuk oso gertutik jarraitu duzu txapelketa. Zer azpimarratuko zenuke?

Bertsolari gazteek dakarten maila ikaragarria. Oso ondo prestatuta datoz: hiztegi eta esamolde aberatsak, erri-mak... Agin Laburu, Alaia Martin, Jokin Uranga, Unai Agirre... saio bikainak egin dituzte finaletik kanpo geratu arren. Esperientzia hartzeko balio izan die, eta hemendik urte batzuetara kartelak hankaz gora jartzeko arrisku handia dago.

Merezitako tokian al dago txapela?

Bai, duda barik. Erabat ados epaimahaiarekin. Oso maila handiko finala izan zen, goiz goizetik hasita gainera. Puntuazioek ere horixe erakusten dute; Maialen sartu zen buruz burukora, baina Elortza edo Mendiluze pasatzen zirela esan baligute ere sinistuko genuen berdin berdin. Eta hurrengo sailkatuetara ere puntu hondar batzuk besterik ez daude, hainbeste bertsoren ondoren. Horrek esan nahi du maila ikaragarria izan zela.



“60 bat laguneko familia osatzen dugu Bertso Eskolan”

Susperraldia bizi du bertsozalekasunak Oñatin azken urteetan, eta horren isla da Bertso Eskola bera ere. Gaur egun, adin ezberdinetako sei talde ari dira bertan; 12 urte ingurukoak gazteenak, eta 40 ingurukoak beterranoenak. Danera, modu batera edo bestera bertso eskolari lotuta daudenak batuz, 60 bat laguneko familia osatzen omen dute.

Azken urte hauetan Errekaldeko haur eskola zaharrean izan du egoitza bertso eskolak, baina dagoeneko txiki geratu zaie, eta urte berriarekin batera ETEO zaharrera lekualdatuko dira.

Gazteen formazioarekin jarraitzeaz gain, beste proiektu edo egitasmo batzuk ere badituzte esku artean. Horien artean, Oñatiko bertsolaritzaren historia jasoko duen liburua idaztea. “Herri oso bertsozalea da Oñati, eta historia aberatsa du. Gainera, historia hori ezagutu duen jendea bizi da oraindik, eta, beraz, bilduma lan hori egiteko unea da. Badaukagu taldean lan hori egiteko prest dagoenik, eta informazioa batzen ere hasita dago, baina, jakina, ordu asko eta dedikazio handia eskatzen duen lana da. Horregatik, proiektua onartu eta dirulaguntza lortu nahian gabiltza, egitasmoari bultzada sendoa emateko”.

‘AULKI HUTSAK’

doluaren inguruko dokumentala aurkeztuko dute Oñatin



‘Maite dugun hori hiltzean zer?’ galderari erantzun nahi dio dokumentalak

Eguna oraindik zehaztu gabe dagoen arren, urtarrilean ikusi ahal izango dugu Oñatin doluaren inguruan Iñaki Peña medikuak zuzendu duen dokumentala.

Gure gizartean ia tabu bihurtu den heriotzaren gaia jorratzen du dokumentalak, ‘maite dugun hori hiltzean zer?’ galderari erantzuna aurkitu nahian. Profesional eta heriotzaren osteko dolu-garaiari aurre egin dioten hainbat pertsonaren testigantzak biltzen ditu lanak, zenbait oñatiarrenak ere bai tartean.

Mina, haserre, tristura, burumakurtasuna... Halako prozesu gogorretan izan ohi ditugun sentimenduez hitz egiten du.

OSTEGUN KONTALARIAK / urtarrilak 30

Haurrentzako ipuin kontaketa saioa udal liburutegian

‘Ostegun kontalariak’ ekimenaren barruan, hileko azken ostegunetan haurrentzako ipuin kontaketa saioa egoten da udal liburutegian. Hil honetakoa urtarrilaren 30ean izango da, Lur Kortaren eskutik. Sarreak, ohi bezala, aurreko astean zehar eskuratu beharko dira liburutegian.

Bestalde, liburutegiko ‘Tertulixan’ irakurle taldeek saio berri bana izango dute urtarrilean. Gaztelerazko taldeak Italo Calvinoren ‘*Si en una noche de invierno un viajero*’ liburua aztertuko du, eta euskarazkoak berriz, Aran-tza Urretabizkairen ‘*Zergatik panpox*’.



URTARRILEKO AGENDA

urtarrilak 10 KONTZERTUA GAZTELEKUAN GARI eta KEU AGIRRETXEA

Gari kantautorea zuzenean entzuteko aukera izango dugu Gaztelekuan, urtarrilaren 10ean. *Hertzainak* taldeko kide ohiak 'Ez da amaiera' izeneko bere azken lana, zazpigarrena bakarkako ibilbidean, aurkeztuko du. Gariren aurretik Keu Agirretxea ondarrutarrak abestuko du. Sarrera: 5€. *Gaztelekua*, 22:30.



urtarrilak 26 KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'BI BALA'. Bertsoa eta musika



Bertsoa eta musika batzen duen emanaldia; bertso-kontzertu moduko bat. Letrak batez ere umorezkoak, oso ironikoak eta probokatzailer xamarak dira. Euskaldunon kontraesanei buruz kantatzen dute, (asko zeukeagu-ta!) batez ere. Doinu ezagunak eta beraiek sortutakoak tartekatuz. Hori bai, emanaldi guztiak desberdinak izaten dira, eta doazen tokirako propio sortutako letra, doinu eta bertsoiak sortzen dituzte. Gonbidatu bereziak ere izaten dituzte tokiaren arabera. Iñaki Gurrutxaga, Julen Goikoetxea (bateria) eta Aitzol Barandiaranek osatzen dute taldea (tarteka, baju-jotzaile batek ere bai). *Pako taberna*, 19:30.

urtarrilak 31 KONTZERTUA GAZTELEKUAN GOSE

Trikikitixa eta rock tekno-logikoa uztartzen dituen Arrasateko hirukotearen musikaz gozatzeko aukera izango dugu hilaren 31n Gaztelekuan. Ines Osinaga buru duen taldeak bere bosgarren diskoa plaza-ratu zuen iaz. Sarrera: 5€. *Gaztelekua*, 22:30.



● Zinea euskaraz

Urtarrilaren 4 eta 6an 'Azti txikia' filma euskaraz ikusteko aukera egongo da Kultur Etxean 17:00etan.



● Bandaren kontzertua

Oñatiko Musika Bandak kalejira egingo du urtarrilaren 6an, goizeko 11etan, eta ondoren kontzertua eskainiko du Santa Ana aretoan 12:45etan.

HAURRENTZAKO ANTZERKIA

urtarrilak 25 Hansel eta Gretel txokolatezko etxean



Grimm anaien ipuin klasikoan oinarritutako haurrentzako antzezlanaren taularatuko du Glu Glu konpainiak Oñatin hilaren 25ean, Santa Ana, 17:00etan.

Ipuinean bezala, Hansel eta Gretel basoan galduta ibili ondoren txokolatezko etxea aurkituko dute, baina bertan bizi den sorgin maltzurak giltzapetu egingo ditu, lodiago daudenean jateko asmoz. Antzezlanak bat egiten du jatorrizko narrazioarekin, gaur egungo osagai eszeniko eta musikalak erantsiz. Galder Perezek egin du egokitzapena. Familia osoari zuzendutako ikuskizuna

IRRIEN LAGUNAK pailazoen ikuskizuna Antixena Gaztetxean



‘Marikalanbre eta Martinbertso arrantzara doaz!’ ESTREINALDIA!

urtarrilak
12

Gogotsu ekin diote urte berriari Antixena Gaztetxean, berritasun eta nobedade ugarirekin. Hala, urtarrilaren 12an, IRRIEN LAGUNAK klubeko pailazoen ikuskizun berria programatu dute, haurren gozagarri. **‘Marikalanbre eta Martinbertso arrantzara doaz!’** du izenburua Irrien Lagunen abentura berriak. Arrainik ez, eta txipiroirik ere ez, dantza eta alaitasuna dira arrantzatuko dutena. Ikuskizun parte-hartzailea da oraingo hau ere, abesti ezagunez, eta pasarte celebraz osatua. Dibertigarria bezain hezitzailea, 45-50 minutu irauten duena. Ikuskizun berria da, eta estreinaldia izango da Gaztetzeko. Sarrerak aurrez salgai jarriko dituzte eta, seguruenez, aurreko astean zehar ikastetxeetan eskuratu ahal izango dira.

BIDEO EMANALDIAK gaztetxean domekero


Aurtengo neguan ekimen berria jarriko dute abian Antixena gaztetxean: **bideo emanaldiak**. Hala, urtarri-laren 19an hasi eta mar-txoaren 9ra bitartean, bideo interesgarri bat ikus-teko aukera egongo da bertan, arratsaldeko 7etan.

Arreta berezia jarri dute emanaldien aukeraketan. Interneten, telebistan eta bazterretan fundamentu gehiegirik gabeko emanaldi sortak nagusitu diren honetan, zinemaren historian klasiko bihurtu diren zuzendari eta pelikulak aukeratu nahi izan dituzte. Horrez gain, gai politiko eta sozialen inguruan diharduten pelikula eta dokumentalak ere aukeratu dituzte. Honako hauek dira datozen asteetan ikusi ahal izango diren dokumentalak: urtarri-laren 19an **‘ETari buruzko TVEren dokumentala’**; urtarri-laren 26an **‘Agenda oculta’** (Ken Loach, 1990); otsailaren 2an **‘La Strada’** (Federico Fellini, 1954); otsailaren 9an **‘Amour’** (Michael Haneke, 2012).

Bideo emanaldiak arratsaldeko 7etan hasiko dira, eta bukatzean afari-merienda bat egongo da. Ondoren, jendea animatzen bada, pelikula-dokumentalari buruzko hizketaldia ere egongo da.

BILBORA JOATEKO DEIALDIA

Goiko lerroetan aipatutako bideo emanaldi eta Irrien Klubeko ikuskizunaz gain, urtarri-laren 25ean kontzertua egongo da gaztetxean (taldea konfirmatu barik oraindik). Bestalde, Antixena gaztetzeko dei egiten die herritarrei urtarri-laren 11n euskal presoen eskubideen alde Bilbon egingo da mobilizazio nazionalen parte hartzera.



● Argazkigintza Hastapen ikastaroa

ILUNPETAN taldeak argazkigintzako hastapen ikastaroa antolatuko du hirugarren urtez jarraian. Etxean dugun argazki kamera ulertu eta hobeto erabiltzen ikasteko ikastaroa da. Teknikaz gain, irudien konposizioa ere ikusiko da, argazkiak egiteko begirada lantze aldera. Otsaileko lehen astean hasi eta Aste Santura arte luzatuko da (10 aste). Asteazkenetan izango da (18:30-20:00) Prezioa, 60€. Izena emateko idatzi ilunpetan@gmail.com helbidera, edo deitu 605753966 telefonora.



● ‘Hamlet’ antzezlanaren Oñatin otsailaren 2an

William Shakespeare XVI. mendearen amaieran idatzitako ‘Hamlet’ obra ospetsuaren egokitzapena ikusteko aukera izango dugu otsailaren 2an. Antzerkien antzerkia dela esaten da, garaian garaiko interpretazioa eskatzen duena. Oraingo honetan, *Artedrama*, *Dejabu* eta *Le Petit Theatre de Pain* taldeek euskaratu eta egokitu dute elkarlanean, Ximun Fuchs-en zuzendaritzapean..



● Ikastaroak KZgunean

Honako ikastaroak antolatu dituzte Oñatiko KZgunean urtarrierako. E-ADMINISTRAZIOA: ‘Metaposta’ (urt. 14); OINARRIZKO INTERNET: ‘Internet ikastaroa’ (urt. 7-20), ‘Ebay’ (urt. 7), ‘Softonic’ (urt. 10); GOOGLE APPS: ‘Google aplikazioen ikastaroa’ (urt. 20); SARE SOZIALAK: ‘Twitter’ (urt. 9), ‘Youtube’ (urt. 24); IRUDIA ETA SOINUA: ‘Kizoa’ (urt. 16), SOFTWARE LIBREA: ‘Impres’ (urt. 13); IT TXARTELA (urt. 23).

Informazio gehiago: 943023672 edo tutor.onati@kzgunea.net hel-bidera idatzita.

Proiektu hau sormena mugari duelarik eraiki nahi dugulako. Kolorez, aniztasunez jantzia. Eltze (lapiko) batean janaria prestatzen den moduan, poliki, borborka, berotasuna zainduz, eltzearen inguruan elkarrekin hitzegin eta elkarrekin amets egiteko momentuak sortuz. Heldutasunez eta nortasunez landutakoa izango dena. Orainalditik etorkizunera helduz.



Bigarren faseari ekingo zaio ETEOko proiektuan

Proiektuaren izaera eta edukiak definitzeko ordua heldu da

Azken hiru hilabeteetan herriko kultura politikaren inguruko hausnarketa egiten jardun dugu, helburua izan da herriko taldeek dituzten zailtasunak identifikatzea, eta elkarren artean sortu diren elkarlan proiektuak, eta, batez ere, herriko eragileek eta administrazio publikoak dituzten hartueman eta baliabideen kudeaketa aztertzea.

Guztira 41 elkarrizketa egin dira elkarrekin, sortzaileekin eta udal teknikariek, eta helburua izan da, batetik, egitasmoaren berri ematea, eta, bestetik, herriko kultur politikaren inguruko informazioa jasotzea.

Horiez gain, 6 lan saio egin ditugu, gure helburua ez baita soilik taldeek beraien errealitatearen hausnarketa egitea, baizik eta elkarrekin komu-nitatearen inguruko irakurketa egitea. Lan saio hauetan guztira 38 herritarrek hartu dute parte.

Urrian zehar herriko talde eta elkarteei informazio bilketarako fitxa bat helarazi zitzaion, lau esparru ezberdinei buruzko informazioa eskatuz: funtzionamendua, kudeaketa, herriko beste eragileekin dituzten harremanak eta espazio



“Batetik, proiektuaren funtzionamendu oinarriak definitu behar ditugu, eta, bestetik, zer nolako espazio edo zerbitzuak kokatu beharko liratekeen”

fisikoari buruzko informazioa. Talde askori behin eta berriz helarazi bagenien ere dokumentu hau, erantzuna oso ahula izan da; 30 talderi bidali gehien fitxa eta hauetatik soilik 10 etorri dira bueltan.

BIGARREN FASEA

Urtarriletik ekainera bitartean egitasmoaren 2. Faseari ekingo diogu; proiektuaren izaera eta edukiak definitzeko ordua heldu da. Batetik eraikin edo proiektu honek dituen funtzionamendu oinarriak definitu behar ditugu, nolakoa izango den definitu: nortasuna, izaera, ezaugarriak. Eta bestetik bertan zer nolako espazio edo zerbitzuak kokatu beharko lirateken.

Hilabete hauetan espazio edo beharrian batzuk definitu dira: musika sormen gunea, sormen gunea, ekintzailetasuna landuko duen proiektu bat, herriko talde eta eragileen funtzionamendu espazioa,... Baina zer behar dugun definitzea ez da nahikoa, espazio bakoitzaren definizio konkretuago bat egiteko momentua heldu da: nolakoa izan behar den, zer nolako azpiegiturak egon beharko lirateken, ...



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21




SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

BELAR, S.A. Irrati -Telebista

expert 

Olakua, 1 - C behea
Tel. / Faxa: 943 78 06 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

FAGOR
SIEMENS
SONY
PHILIPS
FAGOR
SIEMENS
SONY
PHILIPS



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28

Guardiako taxilariak

ABEND. 30 - URTAR. 5
JOSU LERTXUNDI
663 031 322

URTARRILAK 6 - 12
ANA ORUETA
650 059 999 / 943 53 40 82

URTARRILAK 13 - 19
JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

URTARRILAK 20 - 26
JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

URT. 27 - OTSAILAK 2
JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

ONATIKO TAXI GELTOKIA
943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA
943 400 500

Telefonointeresgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa943 78 34 53
Arrikutz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritzia943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILEAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENEFE902 24 02 02

Merkatu Txikia

Garaje itxia alokatzen da Arantzazuko ama kalean. Deitu: 667 742 095.

Errentan hartuko nuke pisu bat, hiru logelakoa. Hileko errenta 500€, gehienez. 666155836.

Lizaur kalean garajea errentan. Prezioa 80€ hilean, pasabidea barne (32,4m²). Deitu: 645719884

Ugarkalden garajea errentan. Prezioa 45€ hilean, (18m²). Deitu: 645719884

Klase partikularrak Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezian graduatutako nekak 2013/14 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako ikasleei, bakarka zein taldeko, klase partikularrak emateko prest. 687114474

Lokala alokatzen da Bidebarrieta kalean 68m²-koa obra eginda. Deitu: 943533637

Pisua errentan Bidebarrieta kalean (95m²). 2002. urtekoa. Igogailuarekin. Guztiz jantzita. Egongela, sukaldea, hall, hiru logela, bi bainu gela, terraza zabala eta trastelekua. Garajea aukeran. Interesatuak deitu: 629373919

Garaje plaza itxia alokatzen da Atzeko Kale - Bidebarrieta inguruan. Deitu: 619817072.

BMWa salgai, compact serie 3 (318 ti) modeloa. 1996. urtekoa, eta 218.000 km. Jabe bakarra. Narruzko jarlekuak, aleazio haguak (ilantak). Egoera oso onean. Aukera ederra. Deitu: 619817072

Pisua errentan (105m²) 3 logela, 2 bainu gela, sala, sukaldea eta terraza. Guztiz jantzita. 675€ + komunidadeko gastuak. 645719884

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

URTARRILAK 10

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

URTARRILAK 28

Plastiko batzea ohiko bilketa puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutzuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbatak 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino lehen, 943 71 19 38 zenbakira deitu behar da. Traste zaharrak 20:00-22:00 artean atera behar dira.

Antxiñako fotografixak

Antonino Ibarrondoren mendeurrena

Aurten, bagillaren hamalauan, beteko dira ehun urte **Antonino Ibarrondo Oleaga** (1914-1985) jaixo zala. Hori dala eta, ospakizun eta ekintza batzuk antolatuko dira urtian zihar gure herriko musika-bandiarekin hain lotura haundia eta estua euki eben musiko bikain honen omenez. Egixa esan, XX. gizaldia benetan aberatsa izan geben Oñatin musika-saillari dagokionian: Antonino ez ezik, garai horretakuaq dittugu, hilddakuaq bakarrik gogoraketiarren, **Patxi Madina**, **Joxe Azpiaz**, **Julian Zelaia** eta **Joxe Mari Arzuaga** be.

Antoninok, musikari profesionala izan barik, urte askuan ikaragarritzko lana egin eben arlo horretan Oñatin. Ez **banda-zuzendari** moduan bakarrik, **konposaitzaille eta musika-maixu** lez be bai. Gerra osteko hainbat jeneraziñok ikasi eben Ibarrondorekin solfeua edota instrumenturen bat jotzen Santa Marinako eskoletako txaranga. Eta txantxiuarron musika-paisajian betiko erantsita geratu xakun **kontziertu-pieza**, **doiñu eta kalejira ugari berak sortutakuak dira**. Gaur egun be sarritan entzuten dittugunak.



Oñatin, 1970eko hamarkadiaren hasieran herriko musika-bandia desegin zanian, A. Ibarrondok Bizkai aldera jo bihar izan eben: lehenengo **Sestaora**, oposiziñuak irabazita, **hango udal bandiaren arduria hartzeko**; eta urte batzuk geruago, hemen be oposiziñuen bidez, **Bilboko musika-banda ospetsuaren zuzendari-kargura**, jubila u zan arte. Batian nahiz bestian oso estimaua izan zan Antonino.

Ibarrondotarrak musika-saga luzia gauzatu daue Oñatin eta hemendik kanpora. Dan-danak ezin dittugu orain aittatu, baiña hara batzuk: **Felix Ibarrondo** plazako arkupetakoz zapatarixak, Antoninoren aittak, herriko hainbat bandatan jardun eben; Antoninoren seme zaharrenak, **Iñaxio Ibarrondo Ugarte**k, aittaren tradiziñuari jarraitu xao eta herriko bandiaren zuzendarixa da azkenengo hogeita hamar eta piku urte honeittan; eta **Felix Ibarrondo Ugarte** hurrengo semia eta frantziskotarra, iragoko berrogei eta bost urtietan Parisen dabil lehenengo illaran banduardiako musika klasikuaren saillian.

Ezkerreko fotografixan **hiru musiko-belaunaldi** agiri dira: Felix aittajauna, Antonino semia eta Iñaxio billobia 1940ko hamarkadan. Eskumakua, berriz, Ibarrondori 1985eko maiatzaian Oñatin egin xakon omenaldikua da: **Pedro Iraola Txapak** bandiaren izenian orogarrixa emuten Antoninori, honen andria, **Fran Ugarte**, atzian dala. Handik bi hillabetera hil zan Antonino 71 urterekin.

J. E.

Fotografixak Iñaxio Ibarrondok itzittakuak dira. Omenaldikua Plazaolak ataratakua da. Argibide gehixenak be Iñaxiok samurtu dosku. Milla esker!

Oharra: Orain hurrengo zenbakixan kaleratu geben sail honetako orrixan etxe berezi batekin ahaztu giñala esan dosku batek baiño gehixagok. Bueno, ahaztu-ahaztu ezkiñan egin, baiña, biharbada, **Gomendio-enea** moduan agertutako Altxibar aldeko etxia gerra ostian **Onraitena** izenarekin ezaguketan gebela adieraztia komeni zan.

Arkauz zure etxea da.

ARKAUZ
GRUPO

ARETXABALETA 1950 - 2014 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Aldizkarian
publizitatea
sartu gura
dozu?

K

KONTZEJUPETIK

KONTZEJUPETIK

Eskatu konpromiso barik gure tarifak

publi@oinati.net

943 78 20 72 edo 617 80 30 25

grupo
amuebladora
mondragonesa

centro hogar MUEBLES



Amuebladora Mondragonesak

urte zoriontsu bat opa nahi dizue.

URTE BERRI ON !



Zigarrola 1 • Tel.: 943 71 10 12 • ARRASATE
Zerkaosteta, 3 • Tel.: 943 71 10 11 • ARRASATE